

**EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIA, JARDUTEKO
ETA KOORDINATZEKO
TOKIKO PROTOKOLOAK
PRESTATZEKO GIDA**

**EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIA, JARDUTEKO
ETA KOORDINATZEKO
TOKIKO PROTOKOLOAK
PRESTATZEKO GIDA**

SUSTATZAILEA: Nafarroako Berdintasunerako Institutua

BABESLEA: Nafarroako Berdintasunerako Institutua

EGILEA: IBAIN CONSULTORÍA SL

AUTOREA: Sara Ibarrola Intxusta

LAGUNTZAILEA: Nafarroako Berdintasun Teknikarien Sarea

MAIATZA 2018

aurkibidea

1. SARRERA	4
2. ZERGATIK GIDA HAU, NORENTZAT EGIN DEN, ETA NOLA IRAKURRI	6
3. TOKIKO PROTOKOLOAK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI DAGOKIONEZ HOBEBI ERANTZUTEKO ETA KOORDINATZEKO TRESNA GISARA	10
3.1. TOKIKO PROTOKOLOAK NAFARROAKO TOKI ENTITATEEN ERREALITATERAKO HURBILKETA BAT	11
3.2. ZER INPLIKAZIO DAKARTZA TOKI ENTITATEETAN ARAU- ETA PROGRAMA-ESPARRU BERRIAK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI AURRE EGITEA KOORDINATZEARI DAGOKIONEZ?	12
4. TOKI ENTITATEEK PENTSATU BEHARREKO ALDERDIAK, PROTOKOLOA PRESTATZEN HASI AURRETIK	23
5. TOKIKO KOORDINAZIO PROTOKOLO BAT EGITEKO JARRAIBIDEAK	26
5.1. LANERAKO METODOLOGIA	27
5.2. PROTOKOLOAREN EDUKIAK	33
6. PROTOKOLOA EZARTZEKO, ETA HORREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO MEKANISMOAK	39
6.1. PROTOKOLOAREN JARRAIPENA: TOKIKO KOORDINAZIO MAHAIK	40
6.2. PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA	46
7. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA KASUETAN ESKU-HARTZEA KOORDINATZEKO PROTOKOLOEN EREDUAK	47
7.1. TOKI ENTITATE BATEAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DELA-ETA JARDUTEKO TOKIKO KOORDINAZIO PROTOKOLOAREN EREDUA	49
7.2. JARDUKETA INSTITUZIONALAREN PROTOKOLO EREDUA FESTA GUNEETAKO ERASO SEXISTETARAKO	61
7.3. HILKETA KASUETAN ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EGOERA LARRIETAN ARITZEKO PROZEDURA	72

1

sarrera

Emakumeen kontrako indarkeria, emakume izaeraren diskriminazioan oinarritutakoa, giza eskubideen urraketa larri bat da, eta egungo gizarteangertatzen diren ohikoenetakobat. Abusu horiek oinarritzko eskubideei eragiten diete, hala nola bizitzeko eskubideari, osotasun fisiko eta mentalerako eskubideari, tortura edo tratatu irain-garririkez pairatzeko eskubideari edo goitza eta lan modu askean aukeratzekoari. Hala, emakumeen aurkako indarkeriak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarritzko printzipioa kaltetzen du, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurreegitekoak (aurrerantzean EKIAL), Zioen Azalpenean adierazten duen gisara.

Genero Indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritzak 2015ean Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruz egindako Makroinkestaren arabera¹, azken urtean, estatu osoan, 16 urtetik gorako emakumeen %9,2k bikotekideak eragindako indarkeria psikologiko emozionala jasan du; %7,9k kontrol indarkeria psikologikoa bizi izan du; %2,5ek, indarkeria ekonomikoa; %1,8k, sexu indarkeria; eta %1,4k, indarkeria fisikoa. Bizitza osoan jasandako indarkeriari dagokionez, berriz, ehunekoek argi eta garbi egiten dute gora: 4 emakumetik 1ek baino gehiagok (%25,3) jasan du inoiz indarkeria psikologiko emozionala; %21,9k, kontrol indarkeria psikologikoa; %10,8k, indarkeria ekonomikoa; %10,4k, indarkeria fisikoa; eta %8,1ek, sexu indarkeria. Harreman afektibo batetik kanpo gertatuko indarkeriari dagokionez, berriz, esan behar da azken urtean emakumeen %1,3k indarkeria fisikoa jasan duela, eta %0,6k, sexu indarkeria. Kasu honetan ere, bizitza osoan jasandako indarkeriaz mintzatzean, ehunekoek gora egiten dute nabarmen, %11,6ra eta %7,2ra arte, hurrenez hurren.

2016. urtean, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako 1.199 salaketa jarri dituzte Nafarroako poliziaren egoitzetan². Horietatik, kasuen %53,96an, indarkeria fisikoa eta psikologikoa salatzen zen; %12,1ean, sexu indarkeria; %4,7an, beste mota batzuetako indarkeriak,

eta %15,51n, babes aginduen urraketa. Salaketen %41ean, erasotzailea bikotekidea zen; %39,2an, bikotekide ohia; %10,1ean senide bat eta %7,2an biktimarekin inolako harremanik ez zuen pertsona bat. Salatzaileak bizi diren eremuari erreparatu gero, erasotako emakumeen %62,4 Iruñean eta Iruñerrian bizi da; %16,1 Tuteran inguruan; %9,4 Erribera Garaian; %4,7 Ipar-mendebaldean; %4,1 Estellerrian; %2,9 Erdialdeko Ekialdean; eta %0,5 Pirinioaldean. Salaketei dagokienez eskualdeen artean dagoen desoreka horretan zeresana dute, biztanle kopuruak ez ezik, beste aldagai batzuek ere; azken horien artean dago, hain zuzen ere, eremu jakin horretan berdintasuneko tokiko politikaren bat dagoen ala ez (informazio gehiago, kontzientziazioa, baliabideak, etab.).

Dena dela, zenbateko horien bidez emakumeen kontrako indarkeriaren zati txiki bat bakarrik ikusten bada ere, zenbateko horien tamainak Nafarroako Foru Komunitate osoan eragina izan den neurriak hartzera behartzen gaitu, eragin onuragarria izan dezaten ez soilik indarkeria jasaten duten emakumeengan, baita indarkeriatik bizirik atera diren beste emakumeengan eta, oro har, gizarte osoarengan ere. Hala eta guztiz ere, horrek zinezko eraginkortasuna izan dezan, funtsezkoak dira konpromiso politikoa eta jarduketa koordinatuak, baita arreta integraleko sistemak eskumenak dituzten erakundeek, gutxienez, lan horretan parte hartzea, kolaboratzea eta erantzukizunak hartzea ere.

Gauzak horrela, eta begirada arreta integralaren kalitatean jarrita, Nafarroako toki entitateei laguntza eta aholkularitza ematea –bakoitzari dagokion eskumenen esparruan, eta bai EKIALek zein Nafarroako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Erakunde arteko III. Akordioak ezarritako esku-hartze esparru berriari– da gida honen asmoa, protokoloak presta ditzaten emakumeen aurkako indarkeria dela-eta erakundeek jarduketa eta erantzuna koordinatu eta bateratu ahal izateko.

¹ OGBM: Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa. Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkesta. 2015.

² Nafarroako Berdintasunerako Institutua. Jarraipenaren eta ebaluazioaren urteko txostena. 2016.

2

zergatik gida hau,
norentzat egin den
eta nola irakurri

zergatik gida hau?

Arau esparruak horrela ezartzen duelako.

Gida honek honako hau hauek bete ahal izateko esparru bat ezartzea du asmoa: EKIALek³ 20. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian ezartzen duena, eta Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioak ezarritakoa. Gida honek honako hau ere badu abiapuntu: toki entitateek emakumeen aurkako indarkeriaren arloko esku-hartzea koordinatzeko estrategiak eta tresnak bateratzeko beharra, izan ere, Nafarroako toki entitateek identifikatu dute premia hori, erakundeetako berdintasun ataletan, batez ere, eta badira zenbait urte emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako jarduketa eta erantzun publikoa koordinatzeko tokiko protokoloak egiten dituztela, baina xede, estaldura eta irismen

Hori dela eta, gida honek Nafarroako toki entitateen aholkulari eta laguntzaile izan nahi du, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan jarduketa eta koordinazio protokolo bereziak prestatzeko, abian jartzeko eta horien jarraipena zein ebaluazioa egiteko; horrela, hartzen diren erabakiak ez dira ezjakintasunean oinarrituko.

Beharrezkoa delako emakumeen aurkako indarkeria dela eta erantzun koordinatu eta bateratua ematea eta kalitazteko estandarrak txertatzea.

desberdinekin.

Zehazki, gidan jasotako jarraibide eta metodologiaren bidez, honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Hobekuntza jarraituko ikuspuntua ezartzeko baldintzak sortzea, toki entitateek emakumeen aurkako indarkeria egoerei ematen dieten erantzunean koordinazio prozedurak bateratuz.
- Informazio partekatuko sistema bat ezartzea, horren bitartez, toki entitateek emakumeen aurkako indarkeria dela-eta baliatzen dituzten informazioa eta komunikazioa kudeatzeko prozedurak protokolizatuz.
- Toki entitateetan, emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako baliabide teknikoaren zein giza baliabideen kudeaketa optimizatzea eta baliabide horiek emakumeen zein horien seme-alaben premietara bideratzea, ez daitezen berriro biktima bilakatu.
- Arreta integraleko sistemaren kalitatea hobetzea esku hartzen duten profesionalak emakumeen aurkako indarkeriari buruz prestatuz, batetik, eta bizirik atera diren biktimek sistema hori bera ebaluatuz, bestetik.

³ Ikus araudiaren atala.

norentzat egin da?

Nafarroako toki entitateentzat eta tokiko esparruan aritzen diren eragile instituzional eta sozialentzat

Gida hau honetarako pentsatuta dago:

- Koordinazioko tokiko protokolo bat egin nahi duten **NAFARROAKO TOKI ENTITATEEI** laguntza eta aholkularitza ematea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan aritzeko. Erakunde horientzat, zenbait informazio mota proposatzen dira:

- Berdintasun Atala **DUTEN toki entitateentzat**

Berdintasun atalen ardura da protokoloak sustatzea, kudeatzea eta horien ebaluazioa egitea, bai eta toki entitatean emakumeen aurkako indarkeriaren arloko koordinazioaren buru izatea ere. Horretarako, gida honek prozedura bat proposatzen die, indarkeriaren aurreko jarduketaren koordinazio protokolo bat egin dezaten, bai eta jarduketa koordinatzeko protokoloaren eredu orokor bat ere, toki entitate bakoitzak bere lurraldearen egoerara moldatu beharko duena.

· Toki entitate **GUZTIENTZAT**

Badaude bi egoera zehatz modu espezifikoagoan aritzea eskatzen dutenak: festa guneetan gertatzen diren eraso sexistak, eta hilketak eta eraso larriak. Bai toki entitateek, eta bai elkarteek eta gizarteak berak, modu espezifiko, eraginkor eta egokian aritzeko eskatzen dute horrelako egoerak direla-eta. Horregatik, gida honetan, festa guneetan gertatzen diren eraso sexistei erakundeek erantzuteko protokoloa aurkezten da, bai eta jarduketa ibilbide bat ere, hilketa bat edo eraso larri bat gertatuz gero, toki entitatearen erantzun publikoa bideratzeko. Proposamen horiek biak toki entitate bakoitzeko berezitasunetara moldatu beharko diren arren, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak ezarritako esparruan sartzen dira.

- Toki entitatearen barruko edozein **ERAGILE INSTITUZIONAL ETA SOZIAL** jakinaren gainean jartzea, baldin eta Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako arreta integralaren arloan erantzukizunik badu, eta tokiko protokolo bat prestatzeko, onartzeko edo indarrean jartzeko lanetan parte hartu behar badu.

nola irakurri?

|| Tokiko protokolo bat prestatzeko orientabideen multzo gisara, emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez nola aritu koordinatzeko.

Agiri honetan jasotako orientabideek erabakiak hartzeko aholku gisara balio dute toki entitateek protokoloak egin behar dituztenean. Horretarako, informazioa modu honetan egituratu da:

- **Lehen zatian**, gidaren aurkezpena, horren helburuak eta hartzaileak aurkezten dira, eta ongi zehazten da zertan oinarritu behar den emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez jarduteko eta koordinatzeko protokoloak prestatzean.
 - **Bigarren zatian**, tokiko protokoloa egiteko metodologia deskribatzen da, eta aipatzen du zer alderdiri buruz egin behar den gogoeta protokoloa prestatzen hasi aurretik.
 - **Hirugarren zatian**, lan tresnak aurkezten dira, aurrez esan bezala, toki entitate bakoitzak bere errealitatera moldatu beharko dituenak.
- o **Tokiko protokolo eredu bat, emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez nola aritu koordinatzeko, toki erakundean eta ho-**

rren aginduz emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egiten diren jarduera guztiak koordinatzera bideratua. Protokolo eredu hori Berdintasun Atala duten Nafarroako toki entitateentzat eta berdintasunaren arlorako kontratatutako langile espezializatuentzat egin da.

—o **Jarduketa instituzionalaren protokolo eredu bat festa gunee-tako eraso sexistetarako:** Nafarroako Berdintasuneko Teknikarien Sareak egindako eredu baten (2017) moldaketa da, baina Sanferminetan Herritarrek eta Erakundeek Eraso Sexistei Erantzuteko Protokoloan (Iruñeko Udala) jasotako elementu batzuk ere barne hartzen ditu. Protokolo eredu hori Nafarroako edozein toki entitaterentzat gomendatuta dago.

—o **Jarduketa ibilbide bat hilketen eta emakumeen aurkako indarkeria egoera larrietarako:** hori ere edozein toki entitaterentzat egina da, eta emakumeen aurkako indarkeria kasurik larrienen eman beharreko erantzun publiko eta instituzionala bideratzeko asmoa du.

3

tokiko protokoloak
emukameen aurkako
indarkeriari
dagokienez hobeki
erantzuteko
eta koordinatzeko
tresna gisara

3.1. TOKIKO PROTOKOLOAK NAFARROAKO TOKI ENTITATEEN ERREALITATERAKO HURBILKETA BAT

Protokolo bat arau eta estandarren multzo bat da, protokoloa sinatzen duten eragileek nola jokatu behar duten agintzen duena. Emakumeen aurkako indarkeriaren tratamendu integralak protokoloak egituratzea eskatzen du, horrela esku-hartzea homogeneoa, behar adinakoa eta integrala izan dadin administrazio publiko guztietan eta eragindako zerbitzuetan, eta prebentzioa, arreta, babesa eta indarberritze prozesua egokiak izan daitezzen.

Era berean, protokoloak tresna erabilgarriak dira jardunbideak normalizatzeko, jardunbide horiek eragin handiagoa izan dezaten laguntzeko, eta emakumeen aurkako indarkeriaren forma eta adierazpen guztien eraginari buruzko informazioa emateko ere bai, azken arlo horretan informazio gabezia handiak baitaude toki entitateetan (oro har, salaketei buruzko datuak baino ez dira jakiten).

Une honetan, emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez modu

koordinatuan aritzeko protokolo mota bat baino gehiago dago indarrean Nafarroako Foru Komunitatean: orokorra eta erakunde artekoa (Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatze Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioa), sektorialak (osasunaren, hezkuntzaren eta poliziaren arloetan, adibidez, beren protokoloak dituzte) eta gaikakoak (Koordinatze eta Jarduteko Protokoloa sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatuen kasuan eta Emakumezkoen mutilazio genitalari aurre hartzeko eta aurre egiteko protokoloa). Toki entitateetan ere, beren eskumener esparruan, zenbait protokolo espezifiko egin dituzte, erakundeek emakumeen aurkako indarkeriari modu koordinatuan erantzuteko; bestela, tokiko esparruari eragiten dioten protokolo bateratuen inguruan lan egiten dute. Beheko taulan jaso dira une honetan Nafarroako toki entitateetan indarrean dauden eta udalbatzak edo gobernu taldeak edo/ eta Emakumearen Kontseiluak onartu dituen protokoloak:

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI DAGOKIONEZ JARDUTEKO ETA KOORDINATZEKO PROTOKOLOAK	URTEA	ENTITATEA	IZENBURUA
	2011	Antsoaingo udala	Tokiko I. Jarduketa-protokoloa, Antsoainen emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Udal jarduketa koordinaturako I. Protokoloa, Atarrabian genero indarkeriari aurre egiteko.
	2013	Atarrabiako udala	
FESTA GUNEETAN EDO BESTELAKOETAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI DAGOKIONEZ JARDUTEKO ETA ERANTZUTEN PROTOKOLOAK	2017	Nafarroako Toki Entitateetako Berdintasuneko Teknikarien	Festa Guneetan Eraso Sexistei Aurrea Hartzeko eta Arreta Emateko Tokiko Protokoloaren eredu⁴. Eraso Sexistarik Gabeko Altsasuko Festen alde. Herritarrek eta Erakundeek Eraso Sexistei Erantzuteko Protokoloa. Erakundeen Jarduketa Protokoloa Emakumeen kontrako indarkeria kasuetan.
	2017	Sarea	
	2017	Altsasuko udala	
	2017	iruñeko udala Barañaingo udala	

⁴Gida horretan, erakundeen jarduketa protokoloaren eredu bat aurkezten da festa guneetan gertatutako eraso sexistei erantzuteko; eredu hori Nafarroako Toki Entitateetako Berdintasuneko Teknikarien Sareak egindakotik abiatzen da.

Ikusten ahal denez, bi tokiko jarduketa protokolo ari dira aplikatzen, Antsoingoa eta Atarrabiakoa, eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan erantzukizuna duten udal eragileen jarduketa identifikatzen eta espezifikatzen dute; besteak une eta gune zehatzetan jarduketa koordinatzeko protokoloak dira. Aipatutako bi protokolo horiek emakumeen aurkako indarkeriaren egiturazko dimentsioari egiten diote aurre, eta berdintasun atalak darama haien gidaritza.

Dagoneko, nolabaiteko lan esperientzia sortu da eta esperientzia hori beste toki entitate batzuetara lekualdatzeko beharra dago; gainera, bada

tokiko koordinazio protokoloak prestatzeari euskarri juridikoa ematen dion arau esparru bat; hala, beharrezkoa da protokolo berriei egitura partekatu, logiko eta arrazoitu bat ematea, kalitate teorikoa, normatiboa eta teknikoa emanen diena, eta protokolo horiek etengabe berrikustea eta jarraipena egitea bultzatuko duena, hobekuntzak txertatzeko.

3.2. ZER INPLIKAZIO DAKARTZA TOKI ENTITATEETAN ARAU- ETA PROGRAMA-ESPARRU BERRIAK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI AURRE EGITEA KOORDINATZEARI DAGOKIONEZ?

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko arau- eta programa-esparru berriak lau inplikazio nagusi ditu Nafarroako toki entitateentzat,

eta dagokion moduan aintzat hartu eta jaso beharko dituzte haien tokiko protokoloetan. Hona hemen inplikazio horien azalpena.

Lehen inplikazioa: badago erreferentziako arau esparru bat

Toki entitateek nahitaez egin eta betearazi behar dituzte emakumeen kontrako indarkeriaren arloko protokoloak, prebentziokoak, indarkeria hautematekoak, jarduketakoak zein deribaziokoak. Gainera, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioa sinatu duten erakundeek, bakoitzak bere eskumenaren esparruan, parte hartzeko konpromisoa adierazi dute emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko tokiko koordinazio protokoloak prestatzeari eta garatzeari dagokionez.

NA
FA
RROA

14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre egitekoa.

20. artikulua: “Foru Administrazioak detekzio, jarduketa eta deribaziorako protokolo bereziak prestatuko ditu bere lurralde esparruko toki entitateekin elkarlanean, eta prozesu horietan dituen inplikazioa eta eginkizunak kontuan hartuta. Protokolo horietan ildo batzuk ezarriko dira emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinen aurrean lan egiteko”.

Bigarren xedapen gehigarria: “Foru lege honetan aipatzen diren protokolo guztiak derrigorrez bete beharrekoak izanen dira sinatzen dituzten erakunde, pertsona eta entitate publiko edo pribatu guztientzat”.

NA FA RROA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioa (2017)

III. Akordioaren laugarren puntua: Indarkeria hautemateko erantzukizun instituzionala

Instituzio sinatzaileek, emakumeen kontrako indarkeria kasuak gertatu direla jakitean, prest daude jarduketa honako hauetara egokitzeko: batetik, akordio honi erantsi zaizkion jarduketa koordinaturako protokoloetara eta, bestetik, Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dauden erakunde arteko koordinaziorako beste protokolo batzuetara, horien artean, Sexu esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatuen kasuak koordinatzeko eta jarduteko Protokoloa (2016), eta Emakumezkoen mutilazio genitalari aurrea hartzeko eta aurre egiteko Protokoloa (2013), betiere akordioa sinatu duten aldean kompetentziak eta botere judizialaren independentzia al bait gehien errespetatuz.

Halaber, erakunde sinatzaileak, berriro ere kompetentziak eta botere judizialaren independentzia al bait gehien errespetatuz, prest daude Nafarroako toki entitateekin elkarlanean tokiko koordinazio-protokoloak gauzatzeko eta garatzeko, emakumeen kontrako indarkeria hauteman, behar bezala jardun eta bidera dadin.

Instituzio sinatzaileak: Nafarroako Gobernua, Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritza, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusia eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

ESPA INA KO Estatua

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Eraginkorra izatekoa.

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurriei buruzkoa.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen; horren arabera, udalek jarduera osagarriak egiten ahal dituzte” emakumeen sustapenaren” arloko politiken esparruan.

4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzkoa.

EU RO PA

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Konpromiso Estrategikoa 2016-2019.

Istanbuleko Hitzarmena, Emakumeen kontrako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeari eta aurre egiteari buruzkoa (Espainiak 2014an sinatu zuen).

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako (2006).

NA ZIO AR TEA

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda (Garapen Iraunkorrerako Helburuak) (2015).

Emakumeari buruzko Beijingo munduko konferentzia (1995) eta Beijingo Adierazpena eta Ekintzarako Plataforma, 2015ean New Yorken berrikusia eta berretzia (Beijing+20).

Emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko konbentzioa. (CEDAW) (1979, Espainiak 1983an sinatu zuen) eta horren Protokolo Fakultatiboa.

Haurren Eskubideen Nazioarteko Hitzarmena (1989).

Bigarren inplikazioa: emakumeen kontrako indarkeriaren mota eta adierazpen berriak

Emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpenak eta motak zabaltzen ari dira. Hori dela eta, tokiko protokoloen lana litzateke EKIALek jasotzen dituen emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpen eta motetatik abiatuta, zer indarkeria motari erantzun behar dion mugatzea eta kontzeptualizatzea.

Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre egitekoak, emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpentzat jotzen ditu honako hauek:

INDARKERIA BIKOTEAN EDO BIKOTE OHIAN

Indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sexuala, bikotekide duen edo izan duen gizonak edo berarekin antzeko harreman afektiboak izan dituenak, batera bizi direla nahiz ez, emakumearen kontra erabilitakoa, indarkeriazko ingurunean bizi diren haurrengan duen eragina barne hartuta.

SEXU INDARKERIAREN AGERPEN EZBERDINAK

Emakume eta nesken kontrako sexu indarkeriak bere baitan hartzen ditu sexu erasoa, sexu abusua, sexu jazarpena lanean edo hezkuntzan eta sexu abusua familian, komunitatean, hezkuntzan, lanean eta esparru publikoan.

FEMINIZIDIOA

Bikotean edo bikote ohian eginiko homizidioak, eta generoak eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria erakusten duten beste krimen batzuk, hala nola sexu-indarkeriarekin loturiko hilketak, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren eremuko hilketak, oho-reagatiko hilketak, neskatoen infantizidioa eta ezkonsariagatiko hilketak.

EMAKUMEEN ETA NESKEN SALEROSKETA

Emakumeak eta neskek erakarri, eraman, lekuz aldatu, hartu edo jasotzea, barne hartuta pertsona horien gaineko kontrola trukitzea edo eskualdatzea, mehatxuekin edo indarra edo bes-telako hertsamen bideak erabiliz, bahituz, iruzur eginez, engainatuz, botere abusuaren bidez edo egoera ahul batez baliatuz, edo emakume edo nesken gaineko kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko dirua edo onurak emanez edo jaso, helburua delarik sexu-esplotazioa, laneko esplotazioa edo menpekotasunezko ezkontza.

PROSTITUZIOA EDO/ETA SEXU-ESPLOTAZIOA

Beste pertsona batzuekin sexu-harremanak diru truke edukitzea. Finantza-onurak edo bes-telakoak lortzea beste baten prostituzioaren esplotazioaren bidez (horren barnean, ekintza pornografikoak edo material pornografikoak egitea), baita haren adostasunarekin ere.

GAZTEEGITAN EZKONTZEA, EZKONTZA HITZARTUA EDO BEHARTUA

Baimen libre eta erabatekorik izan ez duen ezkontza, hirugarrenen arteko akordio baten emaitza izan delako, emakumearen borondatea kontuan hartu gabe, edo mehatxupear edo bortxaz egiten delako, edo baimena emateko legez aurreikusitako adina baino gazteagoa delako emakumea.

EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITALA

Emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekartzen ahal duen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskaren baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa.

Emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kaltetzen ahal duen beste edozein indarkeria mota, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko nahiz Foru Komunitateko araudian aurreikusirik dagoena.

Aipatutako indarkeria mota guztiek eragiten dute kalte edo pairamen fisiko, sexuala, psikologikoa edo ekonomikoa, ekintza hauen ondorio gisa:

INDARKERIA FISIKOA

Emakumearen gorputzaren kontrako indarkeriazko edozein ekintza, kalte fisiko edo mina eragiten duena edo eragiten ahal duena.

INDARKERIA PSIKOLOGIKOA

Edozein jokabide, ahozkoa nahiz ez ahozkoa, emakumearengan oinaze, gutxiespen, bakartze motaren bat edo askatasuna mugatzea eragiten duena, hala nola mehatxuak, derrigortzeak, umilazioak edo laidoak, menpekotasuna eskatzea, jazarpena, hertsapena edo irainak.

INDARKERIA EKONOMIKOA

Emakumearen eta haren seme-alaben ongizate fisiko nahiz psikologikorako baliabideak nahita eta legez justifikatu gabe kentzea, edo bikotearen esparruan bienak diren baliabideak erabiltzeko diskriminazioa.

SEXU-INDARKERIA

Onartu/baimendu gabeko edozein sexu ekintza, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne.

Hirugarren inplikazioa: esku-hartzearen ikuspegi berria

EKIALek esku-hartzearen ikuspegi berri bat dakar, zenbait printzipio zehazten dituena emakumeen kontrako indarkeriaren arloan toki entitateen jarduteko modua arautzerakoan.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ARLOAN TOKI ENTITATEEN JARDUTEKO MODUA ARAUTU BEHAR DUTEN PRINTZPIOAK

GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA, BABESTEA ETA SUSTATZEA

Emakumeen giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzera bideratuko da generoak eragindako emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jardun instituzional eta profesiona-
 nala.

“ARRETA EGOKIA” IZENEKO PRINTZIPIOA

Emakumeen kontrako indarkeriari eman beharreko erantzuna erantzukizun instituzionalaren maila guztietara zabalduko da (prebentzioa, babesa, laguntza, biktimentzako erreparazioa eta justizia sustatzea) eta xedetzat izanen du bermatzea emakumeen eskubideak egiaz gauzatzeko direla.

GENERO IKUSPEGIA ETA BITARTEKARITZAREN BERARIAZKO DEBEKUA

Emakumeen kontrako indarkeriari erantzun ahal izateko, oinarritzakoa izanen da ulertzea generoko estereotipoak eta harremanak, haien erroak eta ondorioak.

Biktimaren eta erasotzailearen arteko bitartekaritza berariaz dago debekaturik emakumeen kontrako indarkeria kasuetan, aplikatu beharreko oinarritzako araudian xedatuta dagoenez.

DISKRIMINAZIOAREN DEBEKUA ETA LURRALDE OREKA

Erakunde publikoek bermatu egingen dute jarduketak aplikatuko direla inolako diskriminaziorik gabe, hau da: jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste edozein iritzi, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, gaitasun ekonomikoa, sexu joera, genero identitatea, adina, osasun egoera, desgaitasuna, egoera zibila, migratzaile estatusa edo egoitzaren egoera administratiboa edozein izanik ere.

Prebentzioa, arreta eta erreparazioa xede duten jarduketak gauzatzeko, Nafarroako aniztasun geografikoa eta landa eremuak hartuko dira aintzat, eta bermatuko da emakume guztiek, seme-alabak barne, jarduketa guztietara jotzeko aukera dutela, edozein lekutan bizi izanda ere.

INTERSEKZIONALITATEA ETA DISKRIMINAZIO ANIZKOITZARI ARRETA EMATEA

Instituzioen erantzunak bereziki hartuko du kontuan emakumeen kontrako indarkeriaren intersekzioa beste desberdintasun eta diskriminazio iturri batzuekin. Emakumeek beren aurkako indarkeriaren errealitatea partekatzen duten arren, egoera desberdina bizitzen ahal dute errealitateari dagokionez, honako hauen arabera: adina, klase soziala, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, egoiliar egoera administratiboa emakume migratzaileen kasuan, edo eskubideez baliatzean emakume sektore zehatz batzuk egoera okerragoan jartzen dituzten beste batzuk.

BEGIRUNEA ETA BIRBIKTIMIZAZIORIK EZA

Instituzioen erantzunak bideak ezarriko ditu ziurtatzeko biktimak begirunez tratatzen direla eta emakumea ez dela bi aldiz biktima bihurtzen. Bermatuko da neurriak biziraun dutenen autonomia eta askatasuna lortzera bideratzen direla, baita beren behar nagusiei erantzuten zaiela ere, biktimen seme-alabenak barne.

ERANTZUKIZUNA

Erakunde publikoek prestakuntza prozesuak ezarriko dituzte bermatzeko emakumeak beren eskubideez egiaz baliatzen ahal direla ziurtatzeko ardura dutenek modu egokian jarduten dutela, esku-hartzea desbideratu gabe. Era berean, erantzukizunak eskatuko dira arreta falta dagoenean.

Esku hartzean izan beharreko ardurak berekin dakar emakumeen kontrako indarkeriaren arloan hainbat prestakuntza programa sektorial abiarazteko eta mantentzeko beharra, oinarrizkoak zein espezializatuak. Nafarroako Foru Komunitateko instituzio publiko guztietan arlo horretan esku hartzen duten profesional guztientzat izan behar dute, edozein ardura maila izanik ere.

PARTE HARTZEA

Indarkeriaren biktima diren emakumeen eta emakume erakundeen parte hartzea sustatuko da jarduketak diseinatzean eta ebaluatzean; halaber, emakumeen kontrako indarkeriaren errealitateari dagokionez ahulagoak diren taldeak ordezkatzeko dituzten erakundeek parte hartzea bultzatuko da.

AURREKONTU BERMEA

Instituzio publikoek finantzaketaren aldeko konpromiso argiari eutsiko diote, Protokoloan jasotako konpromisoak eraginkortasunez bete daitezela, betiere, beren eskumenak eta, batez ere, independentzia judiziala erabat errespetatuz.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ESKU-HARTZEAREN HELBURU GISA

Emakumeen ahalduntzea da esku-hartze profesionalaren xede nagusia. Horretarako, eraldaketa hori gauzatzen laguntzea izan behar du helburu esku-hartze profesionalak. Emakumeen ahalduntzea nahitaezko baldintza da beren kontra egiten den indarkeriari aurre egiteko, bai eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ere.

Laugarren inplikazioa: genero ikuspegia esku-hartzean sartzea

Esku-hartzearen ereduak genero ikuspegia txertatuta izan behar du eta, indarrean jartzeko, protokoloan parte hartzen duten profesionalak emakumeen kontrako indarkeriaren arloko gaikuntza izan behar dute.

EKIAL abian jartzeak esan nahi du toki entitateek esku-hartzearen eredu berri bat berenganatu behar dutela egoera horretarako. Esku-hartzearen eredu hori foru legearen printzipio gidariak bideratzen dute, eta koordinazio protokoloetan jaso behar da, jarduketa estrategia protokoloa sinatzen duten alde guztiek parteka dezaten eta xedea bera izan dadin guztientzat.

Tokiko protokolo bakoitzak esku-hartzearen eredia bere errealitatera egokitzen ahal badu ere, jarraian azaltzen da, erreferentzia eta tokiko protokoloen abiapuntu bezala, zertan datzan 14/2015 Foru Legeak proposatutako genero ikuspegia barneratzen duen esku-hartze eredia Foru Lege horren printzipio gidarietatik abiatuta. Halaber, esku-hartzerako jarraibide espezifikoagoak prestatu eta txertatzen ahal dira, emakumeen kontrako indarkeriaren mota eta adierazpen desberdinetara moldatuak, hala nola desgaitasunen bat duten emakumeen kasuan esku hartzeko jarraibideak.

PRINTZPIO GIDARIAK

GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA, BABESTEA ETA SUSTATZEA

GENERO IKUSPEGIA BARNERATZEN DUEN ESKU-HARTZEAREN EREDUA

- Protokoloaren esparruan, profesionalen jarduketa emakumeen zein haien seme-alaben giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzean oinarritu beharko da.
- Arreta integrala, koordinatua, azkarra (batez ere lehen saioan) eta pertsonalizatua.
- Biziraun duten biktimen segurtasuna bermatuko da, horiek arriskuan jarri gabe.
- Ez da gutxietsiko biziraun duten biktima guztiek adierazten duten arriskuaren pertzepzio indibiduala.
- Biziraun duten biktimak eta horien seme-alabak berriro indarkeriaren biktima izatea eragoztiko da; horretarako, haien anonimotasuna bermatuko da, eta baliabide eta zerbitzu publikoetara jotzeko edota horietan parte hartzeko tramiteak azkartu eta murriztuko dira.
- Salaketa aurkezteko erabakia emakumeena da, eta horri buruz hartzen duten erabakia errespetatu beharko da. Doaneko arreta juridikoak informazio argia eta zehatza emanen du erabaki hori hartzeak dituen ondorioei buruz.
- Prozesu osoan zehar eta kanal egokien bidez jakinaraziko zaie emakumeei eskubidea dutela aske eta indarkeriarik jasan gabe bizitzeko.

“ARRETA EGOKIA” IZENEKO PRINTZIOA

GENERO IKUSPEGIA ZUZENEKO ARRETAN ETA BITARTEKARITZAREN BERARIAZKO DEBEKUA

- Deskribatutako esku-hartze eredua protokoloa sinatzen duten alde guztiek hartu beharko dute aintzat, toki entitateek indarkeria kasuetan duten arreta sistemaren erantzuna homogeneoa izan dadin eta koordinatuta egon dadin.

- Ahal dela, emakumeei bakarka emanen zaie arreta, komunikazioa erraztu, intimitatea errespetatu eta biziraun duten biktimen eta horiekin batera dauden profesionalen artean konfiantzazko harremanak sortzeko egokiak izanen diren tokietan.

- Kontuan hartuko da emakumeek seme-alabekin batera jotzen dutela zerbitzu horietara eta, horrenbestez, toki egokiak prestatu behar direla, emakumeei arreta ematen zaien tokietatik bereizita.

- Aintzat hartuko da, orobat, emakumeek normalki ez dutela berariaz adierazten indarkeria jasaten ari direla, zailtasunak izan ohi dituztela indarkeriari buruz hitz egiteko edota izendatzeko, eta sarri askotan ez direla ohartzen indarkeria jasaten ari direla. Hala, indarkeria dagoelako susmorik bada, egoera hori hitzetan jartzea errazten duten galderak baliatuko dira, eta kasuari etengabeko jarraipena eginen zaio, beste adierazle batzuei erreparatuz (aurrekari pertsonalak, kontsultaren zioa, lesioak errepikatzea, lesioen eta horien jatorriaren arteko kongruentziarik eza, etab.).

- Protokoloa sinatzen duten entitate guztiek antolatuko dute arreta, indarkeria kasuei behar duten denbora guztia eman ahal izateko moduan.

- Esku-hartzearen arlo desberdinetatik ematen diren mezuak elkarren artean osagarriak izateko ahaleginak egin beharko dira, espezializazio esparru bakoitzak marraztutako ildoak errespetatuz, eta emakumeengan itxaropen faltsurik edo okerrik sortu gabe.

- Esku-hartzearen barruan, emakumeen kontrako indarkeriak eragiten dituen erruduntasuna, beldurra, lotsa eta estigma jorratuko dira, haien auto-estimua eta autonomia indartzeko eta emakumeek beren burua zaintzeko gaitasuna sustatzeko.

- Biktimaren eta erasotzailearen arteko bitartekaritza debekatuta dago emakumeen aurkako indarkeria kasuetan; horrenbestez, bikote terapia, familia bitartekaritza edo xede horrekin egiten den bestelako esku-hartze estrategiak ez dira hartuko protokoloaren barruko arreta ereduaren partetzat.

Genero ikuspegia esku-hartzean txartatzeko eta langileen jarduketan hemen jasotako jarraibideak integartzeko, azken horiek berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza egokia jaso beharko dute. Tokiko protokoloek pres-takuntza hartu behar dute barne.

DISKRIMINAZIOAREN DEBEKUA ETA LURRALDE OREKA

- Esku-hartze profesionalaren abiapuntua emakume guztien berdintasuna aitortzetik abiatu da; hortaz, debekatuta dago jarduketetan zuzenean edo zeharka generoan oinarritutako diskriminaziorik egitea, edota, indarkeriaz gainera, emakumeek pairatzen dituzten beste desberdintasun batzuetan oinarritutako diskriminaziorik, hala nola hizkuntzan, erlijioan, egoera edo gaitasun ekonomikoan, sexu joeran, genero identitatean, jatorri etnikoan, prestakuntzan, adinean, osasun egoeran, desgaitasunean, migratzaile estatusen edo egoitzaren egoeran.
- Esku-hartzean, uneoro aitortu beharko da emakume guztiek dutela eskubidea arreta, babes eta berreskuratze sare publikoko baliabide eta zerbitzuetara jotzeko aukera, emakume horiek non bizi diren gorabehera eta, horrenbestez, lurralde berdintasuna bultzatuta.

INTERSEKZIONALITATEA ETA DISKRIMINAZIO ANIZKOITZARI ARRETA EMATEA

- Posible eginen da bizirik atera diren biktimak beren ohiko hizkuntzan komunikatu ahal izatea langileekin, horretarako bitarteko egokiak jarrita (itzulpen profesionala eta presentziala).
- Emakumeek desberdintasun mota bat baino gehiagori aurre egin behar dietela aitortzetik abiatuta, esku-hartze profesionala asistentzialista, paternalista, misogino, matxista eta etnozentrinoa ez den maneran eginen da.

BEGIRUNEA ETA BIRBIKTIMIZAZIOARIK EZA

- Laguntza prozesuak banan-banakoak izanen dira, emakume bakoitzak eta baliabide bakoitzerako erreferentziako pertsonak izan duten ibilbidearen berri izanda.
- Emakumeen denborak eta erritmoak errespetatuko dira, beren kontakizunei sinesgarritasuna emanen zaie, eta beren erabakiak ez dira inoiz epaituko edo gutxietsiko.
- Erreparazio prozesuaren zati gisara, herritarrentzako neurriak proposatuko dira, kaltearen erreparazio kolektiboa xede dutenak.
- Indarkeriari arreta emateko tokiko sarean parte hartzen duten profesional guztiek ulertu behar dute indarkeriatik ateratzeko prozesuek atzerakadak izaten ahal dituztela; hala, ez dira emakumeak horren erruduntzat joko, eta frustrazio sentimenduak alde batera utziko dira esku-hartzean.

ERANTZUKIZUNA

- Protokoloa sinatzen duten erakundeek, gainerako baliabide publikoekin koordinatuta eta horiekin lankidetzan, bermatuko dute bizirik atera diren biktimei ematen zaien laguntza emakumeen aurkako indarkeriaren arloan espezializatua izan dadila, eta horretan aritzen diren langileek behar adinako gaikuntza dutela beren jardunean protokolo honetan proposatutako esku-hartze ereduak aplikatzeko.

PARTAIDETZA

- Indarkeriaren biktimek protokoloaren esparruan jasotako arretaz duten iritzia eta balorazioa aintzat hartu eta bildu egingen dira.

AURREKONTU BERMEA

- Sinatzen duten instituzio publikoek finantzaketaren aldeko konpromiso argiari eutsiko diote, Protokoloan jasotako konpromisoak eraginkortasunez bete daitezela, betiere, beren eskumenak eta, batez ere, independentzia judiziala erabat errespetatuz.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ESKU-HARTZEAREN HELBURU GISA

- Protokolo honetan proposatutako esku-hartzearen ereduak bizirik atera diren biktime guztien ahalduntzea izanen du xede; hala, profesionalen esku-hartzeak emakumeak jarriko dituen erdigunean, eta horiek izanen dira indarkeriatik ateratzeko prozesuen protagonistak.

4

toki entitateek
pentsatu beharreko
alderdiak, protokoloa
prestetzen hasi
aurretik

Gorago emandako informazioan oinarrituta, atal honetan aurkezten da toki entitateek zer alderdiri buruzko gogoeta egin behar duten indarkeriari dagokionez modu koordinatuan aritzeko protokolo bat

ZENBAT JARDUKETA ETA KOORDINAZIO PROTOKOLO DITUZTE TOKI ENTITATEEK?

Ez da kopuru kontu bat, kontua da zer prozedura sortu nahi diren. Alde batetik, jarduketa ibilbide bat dago, toki entitate baten erantzuna koordinatzeko emakumeen kontrako indarkeria kasu oso larrietan edo hilketa kasuetan; bestetik, erakundeen jarduketa protokoloak daude, fes-

prestatzeko erabakia hartu, eta prestatzen hasi aurretik.

ta guneetan gertatzen diren eraso sexistei aurre egiteko; eta, azkenik, emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez toki entitateen jarduketa osoa koordinatzeko protokoloak daude.

ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITU TOKI ENTITATE BATEK PROTOKOLO BAT EGITEKO?

Festa guneetan gertatzen diren eraso sexistei aurre egiteko protokolo bat, edo emakumeen kontrako indarkeria kasu oso larrietarako edo hilketa kasuetarako jarduketa protokolo bat egiteko (gida honetan jarduketa ibilbide bat aurkezten da), oinarritzko bi baldintza bete behar dira:

A) Gauzatzeko konpromiso politikoa.

B) Festa guneetan gertatzen diren eraso sexistei aurre egiteko protokoloei dagokienez, gomendagarria da toki entitatean udal atal bat egotea protokoloa bultzatzeko, prestatzeko, hedatzeko, eguneratzeko eta jarraipena egiteko. Hala eta guztiz ere, protokolo horiek prestatzeko ez da lan prozesu hain zehaztua behar, gida honetan jarduketa protokolo integralagoetarako proposatzen denaren adina zehaztua, alegia, azken horiek egoera gehiago hartzen baitituzte kontuan.

Emakumeen kontrako indarkeriari dela-eta modu koordinatuan aritzeko

tokiko protokolo bat prestatzeko, berriz, baldintza hauek bete behar dira:

A) Gauzatzeko konpromiso politikoa.

B) Berdintasunean espezializatutako teknikariak dituen berdintasun atala.

C) Udaletako Berdintasun Alorretako Lana Planifikatu, Kudeatu eta Ebaluatzeko Nafarroako Gobernuaren Ibilbideak esku-hartze maila honetarako eskatzen duen ibilbidea.

D) Baliabide ekonomikoak, teknikoak eta giza baliabideak.

Egoera horretan bazaude, erabilgarria izanen da jakitea Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioa dela protokoloan parte edo esku hartu behar duten alde guztiei dei egiteko esparrua. Gainera, gida honek jarraibideak eta protokolo eredu bat ematen dizkizu, zure lana errazte aldera.

TOKIKO PROTOKOLO BAT, ESKUALDEKOA IZATEN AHAL DA ALA UDALERRI BATERA BAINO GEHIAGORA HEDATU?

Bai, tokiko protokoloak udalekoak ez ezik, mankomunitate edo partzuegotan antolatutako udalen multzo bati dagozkionak izaten ahal dira. Garrantzitsua da, ordea, protokolo bakoitza dagokion udalerrri edo lurral-

dearen arabera moldatzea; hori dela eta, hemen proposatutako ereduak lana nolabait bideratzeko pentsatuta daude soilik.

ZER EGINKIZUN DUTE BERDINTASUN ATALEK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI ERANTZUTEKO KOORDINAZIO PROTOKOLO BATEAN?

Hauek dira berdintasun atalen ardurak: protokoloa prestatzeko lana gidatzea eta bultzatzea, protokoloan jasotako jarduketak koordinatzea, jorratzen den informazioa zentralizatzea eta protokoloari jarraipena ematea eta eguneratzea. Protokoloa sinatzen duten udaleko gainerako

atalek eta erakunde publiko zein pribatuek ere zehaztuta izan behar dituzte beren ardurak eta eginkizunak, eta horiek betetzeko obligazioa izanen dute.


5

tokiko koordinazio
protokolo bat
egiteko jarraibideak

5.1. LANERAKO METODOLOGIA

Atal honetan, gida honek proposatzen duen protokolo mota egiteko lan metodologia aurkezten da. Metodologia horren oinarria ondoz ondozko faseen lan sekuentzia bat da; jarraian, fase horiek garatuko ditugu, baita bakoitzean funtsezkoak diren mugarrak identifikatu ere. Gida honek proposatutako lan metodologiak ezaugarri bereizgarri bat du: protokoloa prestatzea, toki entitate batean, emakumeen aurkako indarkeriari buruz ikasteko eta arlo horri hobeto erantzuteko prozesu progresibotzat har-

tzen dela. Toki entitateek gida honetan aurkezten diren protokolo ereduak erreferentzia gisa hartzen ahal badituzte ere, inoiz ere ez da begi bistatik galdu behar protokoloak prestatzeko eta indarrean jartzeko lan prozesua dela, hain zuzen ere, benetako eragina izanen duena eta udalerrian edo lurraldean indarkeriari erantzuteko modua egiazki eraldatuko duena.



I.FASEA Prestakuntza

DESKRIBAPENA:


Fase honetan ezartzen dira lana baldintzarik onenetan garatzeko oinarriak. Izaera tekniko argia du fase honek, eta toki entitateko berdintasun atalak bultzatu behar du; izan ere, protokoloa prestatzeko premia ikusarazi eta arrazoitu behar da. Protokoloa gauzatzearen aldeko arrazoiaren artean, nahitaezkoa da hiru hauek aipatzea:

- **Lehena:** Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan entitatearentzat erreferentzia den arau eta programa esparrua, protokoloa prestatzeko obligazioa ezartzen duena (EKIAL, Erakunde arteko III. Akordioa, Tokiko Berdintasun Politiken Plangintza, Kudeaketa eta Ebaluazioa egiteko Ibilbidea, udaleko berdintasun plana, ordenantzak, etab.).
- **Bigarrena:** Toki entitatean emakumeen kontrako indarkeriak duen eraginari buruzko informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa.
- **Hirugarrena:** Emakumeen kontrako indarkeriari ematen zaion toki-ko erantzunaren deskribapen laburra, lurraldean horretarako dauden

baliabideak eta zerbitzuak zerrendatuta, bai eta hautematen diren hobeak ere, batez ere koordinazioari dagokionez. Deskribapen horretan, garrantzitsua da bizirik atera diren biktimen iritzia jasotzea eta biltzea, baita toki entitatean presentzia duten emakumeen elkarteena eta talde feministena ere.

Protokoloa egitea justifikatzen duten zio horiek guztiak baliagarriak dira proposatutako esku-hartzearen (protokoloaren) abiapuntua identifikatzeko, eta egoeraren diagnosi gisara balioko dute.

Horrez gainera, fase honetan proposatuko da zer protokolo mota egin nahi den, gida honetan jasotako moten arabera, bai eta tokiko protokolo horren bidez landu nahi diren indarkeria motak eta adierazpenak zehaztu ere. Hala, protokoloa egiteko beharra justifikatu eta haren xedea mugatu ondoren, protokoloa ontzeko plangintza zehaztuko duen lan proposamena egingen da. Informazio hori hurrengo fasean azalduko da.




II. FASEA *Kompromiso formal*

DESKRIBAPENA:

Fase honetan hezurmamitu behar da proiektu hau udal politikaren agendan sartzeko konpromisoa, horrek bermatuko baitu protokoloa baldintzarik onenetan egitea ez ezik, ondoren abian jartzea ere. Horretarako, nahitaezkoa da arduradun politikoez beren erabakia bideratuko duten argudioak izatea, eta aldez aurretik jakitea koordinazio protokolo bat zer den, zertarako balio duen, zer eginkizun duen berak bai protokoloa prestatzeko eta bai ezartzeko prozesuan, eta zer ondorio izanen dituen toki entitatean protokolo hori indarrean jartzeak. Udaleko berdintasun atalak du informazio hori guztia sortzeko eta ustez egokienak diren bideak erabiliz (txosten teknikoa, informazio edo prestakuntza saioa, posta elektronikoa, etab.) hedatzeko ardura.

Protokoloa egiteko erabakia berretsi eta formalizatu ondoren, prozesu horrek dakarren guztiarekin, hartutako erabakiaren berri emanen zaie eragile hauei, gutxienez, egokituz jotako formatuen bidez:



1. Nafarroako Berdintasunerako Institutuari (NABI)

NABIRi ofizialki horren berri eman behar zaio, zer eragile (osasuna, hezkuntza, BAITak, enplegua, etab.) dei egin nahi zaien adierazita. Horrela, NABIRi, EKIALen eta Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioko Jarraipen Batzordearen esparruan, ofizialki ematen ahalko du horren berri, eta parte hartzeko konpromisoa eskatzen ahalko die dagokien eragileei.

2. Toki entitateko langileei


3. Toki entitatean presentzia eta indarkeriaren arloan erantzukizun bat duten **eragile instituzional eta sozialei, eta herritarrei.**

III. FASEA Protokoloa ontzea

DESKRIBAPENA:

Fase honetan ontzen da protokoloa. Horretarako, komeni da udaleko edo udalen arteko lantalde bat osatzea, protokoloa egiteko talde eragile gisara arituko dena, berdintasun atalaren koordinazio eta zuzendaritzapean egoteko proposamenarekin. Talde eragile hori osatzen duten per-


tsonak geroago tokiko koordinazio mahaietan ere parte hartzen duten berak izaten ahal badira ere, batez ere toki entitate txikienetan, bi gune horiek desberdinak dira.



PROTOKOLOA ONTZEA

Talde eragilea osatu eta hasierako prestakuntza saioa bukatu ondoren, protokoloa idazten hasiko dira. Horretarako, une edo mugarri hauek izanzen dituen lan prozesu bat abiaraztea proposatzen da:

PROTOKOLOA EGITEKO PROZESUA		
PROZESUAREN GAKOAK	EKINTZAK	ERAGILE ESKU-HARTZAILEAK
GAIKUNTZA	Hasierako prestakuntza.	<ul style="list-style-type: none"> • Talde eragilea.
LANKIDETZA ETA ADOSTASUNA	Protokoloaren zirriborroa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> • Lan dokumentua egin eta koordinatzea Berdintasun atala. • Berrikusi, alderatu eta hobetu: Talde eragilea.
GARDENTASUNA	Behin betiko protokoloa aurkeztea, behin betirako onetsi aurretik baliozkotzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Talde eragilea . • Toki entitatean emakumeen kontrako indarkeriaren arloan erantzukizuna duten, baina talde eragilean parte hartzen ez duten eragileak. • Arduradun politikoak.



IV. FASEA Onestea eta gizarteratzea

DESKRIBAPENA:

Prozesuaren azken fase hau protokoloa onartzean –sina dezaten– eta gizarteratzean datza, hau da, toki entitatean emakumeen kontrako indarkeria hautemateko, arreta emateko eta bideratzeko prozesuen jarduketa eta koordinazio tresna hau ezagutaraztean.

Beste modu batean esanda, proposatutako lan plangintza ez da protokoloa onestearekin bukatzen; izan ere, proiektu horren prestaketa zikloa behar bezala burutzeko, azken agiria gizarteratu egin behar da, zenbait bide erabiliz, kontuan hartuta informazioa zer talderentzat den, eta horietako bakoitzari zer mezu helarazi nahi zaion. Hori dela eta, alde batetik, gizarteratze politiko eta tekniko bat egitea proposatzen da (aurkezpen-jardunaldi bat, lantaldeak antolatzea lurraldean presentzia duten erakunde eta elkarten ekintza eremuaren arabera, informazioa bidaltzea, etab.), toki entitatean indarkeriaren arloan esku hartzen dutenentzat; eta, bestetik, komunikazio eta hedapen orokorrago bat, herritar guztientzat (prentsa oharra, prentsaurrekoa, sare sozialak, udalaren

webgunea, etab.), zer egin den ez ezik, protokolo baten esparruan lan egiteak toki entitatean zertan eragiten duen jakin dezaten. Protokoloaren komunikazio plana gidatzeko ardura berdintasun atalak eta tokiko koordinazio mahaiak (eratzten denean) izanen dute.

Hauek dira, protokoloaren komunikazioari dagokionez, aintzat hatu beharreko alderdiak:

—o Komunikazio ekintzak ez dira protokoloa sinatzen den unean soilik eginen, baita hura indarrean jartzeko prozesuan ere, unerik garrantzitsuenetan.

—o Edonork izatea protokoloa ezagutzeko aukera.

EKIALen eta Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatze-ko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioaren printzipioetan oinarritzen diren protokoloak, gida honetan proposatzen den bezala, III. Akordioaren Urteko Jarraipen Txostenean aipatuko dira.



5.2. PROTOKOLOAREN EDUKIAK

Atal honetan adierazten da zer eduki izan behar dituen, gutxienez, tokiko jarduketa koordinatzeko protokolo batek. Bai koordinazio tresna hau prestatzeko prozesuak eta bai protokoloaren edukiek udaleko berdintasun ataletik atera behar dute; gainera, udalerrri, mankomunitate edo partzuergo jakin horretako errealitatera egokitu beharko dira. Hori dela eta, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioaren formatuari jarraikiz, bi zatitan egituratutako protokolo eredu bat proposatzen dugu:

- **Lehenbiziko zatia** komuna da, eta honako hauek aurkezten dira: protokoloa eta hori sinatzeko arazoak, protokoloaren xedeak, erreferentziako arau esparrua, lantzen diren indarkeria motak eta adierazpenak, jarduketak bideratzen dituzten printzipioak eta proposatutako

esku-hartze ereduak. Honako hau proposatzen da: lehenengo atal hau orokorki aintzat hartzea, gida hau argitaratzen den unetik, berdintasun atala duten Nafarroako toki entitateetan sinatzen diren protokolo guztietan. 7. atalean, lehen zati honen eredu bat proposatzen da

- **Bigarren zatia**, prozedurei dagokiena, batez ere, toki entitate bakoitzak zehaztu beharrekoa da, zenbait alderdi aintzat hartuz: lehentasunak, baliabideak, eragile instituzional eta sozialak, emakumeen kontrako indarkeria kasuak, landu nahi diren indarkeria motak eta adierazpenak, etab. Zati honetan, proposamenak egiten dira, batez ere, eta protokoloan jaso beharreko eduki orokorrak aipatzen dira soilik. Protokoloaren talde eragileak landuko ditu, gehienbat, bigarren zati honetako edukiak.

LEHENBIZIKO ZATIA Protokolaren esparru orokorra

EDUKIEN AURKIBIDEA	BILTZEN DUEN INFORMAZIOA
<p>I.AURKEZPENA</p>	<p>—○ Emakumeen kontrako indarkeria zer egoeratan dagoen azaltzea, bai eta tokiko esparru batetik hari aurre egiteko premia ere, mugarri garrantzitsu batzuk aipatuta (diagnosian jasotako informazioa baliatuko da).</p>

II. TOKI ENTITATEAREN AKORDIOA

- o Protokoloa non, noiz eta nola sinatzen den jasoko da.
 - o Protokoloa sinatzen duten pertsonak eta azken horiek ordezkatzan dituzten erakundeak berariaz aipatuko dira.
- Ohar garrantzitsua:** *Udalez gaindiko erakundeen ordezkariak diren pertsonak identifikatzeko, eta protokoloan parte hartzeko duten konpromisoa adierazteko, NABI izanen da bitartekaria, EKIALen eta Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioaren esparruan, NABIRi baitagokio jakinarazpen hura egitea eta partaidetza eskatzea.*
- o Protokoloa sinatzeko arrazoien azalpena. Arrazoien artean jasoko da indarreko araudia betetzearena.
 - o Protokoloa sinatzen duten entitateek hartu dituzten eta protokoloari iraunkortasuna ematen dioten akordioen deskribapena, dagokien hurrenkeran eta behar bezala zenbatuta. Atal honetan jaso beharrekoak:
 - a) Protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak
 - b) Protokoloaren berrikusketa
 - c) Protokoloaren indarraldia
 - d) Protokoloaren finantzaketa

III. JARDUKETA PROTOKOLOAREN XEDEAK

Protokoloaren xede orokorren eta espezifikoen xehetasunak. Honako hauek proposatzen dira xede gisara:

OROKORRA:

—o Toki entitatean emakumeen kontrako indarkeria dela-eta esku hartzen duten erakunde eta eragile guztiak koordinatuta parte hartzea, eta partaidetza espezializatua, integrala, kalitatezkoa eta genero ikuspegiduna izan dadin bermatzea.

ESPEZIFIKOAK:

- o Mekanismoak sortzea emakumeen kontrako indarkeriari erantzuteko esku-hartzeetan parte hartzen duten arlo eta langileen arteko koordinazioa eraginkorra izan dadin eta toki entitatearen errealitateari eta berezitasunetara moldatu dadin.
- o Komunikazio eta koordinazio bideak sortzea toki entitatearen eta arreta integralaren sistemari erantzukizuna duten udalaz gaindiko beste erakunde batzuen artean.
- o Komunikazioa hobetzea, lankidetzarako aukerak sortzea eta konpromisoa areagotzea emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez, arreta prozesu osoan (prebentzioa, hautematea, arreta, babesa eta berreskuratzea) tokiko esparruan esku hartzen duten guztiengan.
- o Toki entitateak eskura izatea emakumearen kontrako indarkeriaren eraginari buruzko informazio egiazkoa, eguneratua eta alderagarria, eta arlo horri ekiteko beharrezkoak diren hobekuntzak identifikatzea eta bideratzea.

Ohar garrantzitsua: *Toki entitate guztiak bilduko dute informazio bera, modu anonimoz betiere, eta informazio hori sortzeko EKIALek 8. artikuluan ezarritakoari men egiten zaio, baita Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioaren urteko jarraipen eta ebaluazio Txostena egiteko baliatzen diren irizpideei ere.*

- o Horretan aritzen diren alderdi guztiak erantzun homoginoa ematea indarkeriari.
- o Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko esku-hartzea profesionalizatzea, esku-hartze hori lagungarria izan dadin bizirik atera diren biktimen ahalduzko prozesuan.
- o Indarkeriaren aurkako gaitzespen publikoa adieraztea eta herritarrak sensibilizatzea gai horrek toki entitatean duen eraginari buruz, emakumeen aurkako indarkeriari gainean dauden aurreiritziak eta estereotipo matxista eta misoginoak ezabatuz.

IV. PROTOKOLOAN EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA KONTZEPTUALIZATZEA

Protokoloak aintzat hartzen dituen emakumeen kontrako indarkeria motak eta adierazpenak mugatzea eta kontzeptualizatzea, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre egitekoak, erabiltzen duen terminologian oinarrituta.

V. ESKU-HARTZEAREN IKUSPEGIA ETA EREDUA

Protokoloaren sinatzaileek bultzatzen dituzten jarduketa guztiak abiatzen dira tokiko entitatearen esku-hartzeari buruzko ikuspegi berri batetik, eta ikuspegi horrek zenbait printzipio aintzat hartzea eskatzen du. Printzipio horiek EKIALen berariaz aipatzen dira, edo zeharka aintzatesten dira, eta, EKIALetik abiatuta, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioan jasota daude. Printzipio horiek aintzat hartzeak esku-hartze profesionala eraldatzen du, bizirik atera diren biktimak erdigunean jartzen baititu. Ikuspegi eta esku-hartzeko eredu berri hori, atal honetan aurkeztuko litzateke, gidan jasotako alderdietatik abiatuta.

BIGARREN ZATIA *Jarduteko protokoloa*

Atal hau toki entitateak egin behar du, bere nolakotasunean oinarrituta. Hala eta guztiz ere, edukiek koherenteak izan behar dute Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde

arteko III. Akordioan jarduketa protokoloari (bateratua zein gaikakoa) dagokionez; gainera, jarraian zehaztutako edukiak jaso beharko dira, gu-txienez:

EDUKIEN AURKIBIDEA	BILTZEN DUEN INFORMAZIOA
<p>I. ESKU HARTZEKO PROZEDURA OROKORRA</p>	<p>Arlo desberdinetatik (BAIT, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Osasun Zentroa, kontsultategia, etab.) arreta ibilbideetara jotzeko sarbideak identifikatzea.</p> <p>Indarkeria kasuen sarbideetatik abiatuta, grafikoki deskribatuko da atal honetan toki entitatearen jarduketa prozedura orokorra egoera horietan. Prozedura bat baino gehiago jasoko dira esku-hartzeak behar duen larritasun mailaren arabera; horrenbestez, jarduketak bi multzotan sailkatuko dira: presakoak eta presakoak ez direnak.</p> <p>—o Presako jarduketa: Bizirik atera diren biktimen bizia edo osotasuna arriskuan dagoenean (beharrezkoak dira osasun langileen eta polizien esku-hartzea da, harrera baliabideak, etab.).</p> <p>—o Presakoa ez den jarduketa: Protokoloa sinatu duten eragileetako batek indarkeria egoera hauteman du, arriskua altutzat jo gabe, eta esku-hartze ibilbidea emakumeekin batera eta emakumeengandik abiatuta hasten da.</p> <p>—o Gomendioa: Esku hartzeko prozedurak zehaztea, zenbait alderdi aintzat hartuz, hala nola toki entitateak indarkeriaren arloan duen espezializazio maila, berdintasunaren arloan duen ibilbidea, haren ezaugarriak (biztanleria, indarkeriaren arloko baliabideak, etab.) eta protokoloan sartzearabaki duen emakumeen aurkako indarkeria motak eta adierazpenak. Gomendio hau erabilgarria da, batez ere, bikotekideak edo bikotekide ohiak sortutako indarkeria egoeretan, horiek izaten baitira ohikoena toki entitateen jarduketa esparruan. Horrez gainera, emakumearen seme-alabak ere indarkeriaren biktima zuzenak direnez gero, komeni da, orobat, esku-hartze orokorreko protokoloan kasu horietan nola aritu zehaztea.</p> <p>Bestalde, emakumeen mutilazio genitalaren eta sexu esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatoen kasuan, gure gomendioa da Nafarroako Gobernuak egoera horretarako ezarritako protokoloen arabera jardutea.</p>
<p>II. ESKU HARTZEKO PROZESUA ARLOKA</p>	<p>A) Protokoloan jasotako jarduketa arloak identifikatzea, bai eta horietako bakoitzean sartzen diren baliabideak ere.</p> <p>—o Esku hartzeko eremuak: Berdintasuna, soziala, juridikoa, poliziala, osasuna, hezkuntza eta enplegua.</p> <p>—o Eremu sozialerako baliabideen adibidea: BAIT, udaleko gizarte zerbitzuak.</p> <p>B) Baliabide bakoitzaren eginkizunak eremuka deskribatzea, prebentzioaren, hautematearen, arretaren eta berreskuratzearen arloei dagokienez.</p> <p>C) Eremu bakoitzerako espezifikokoak diren esku hartzeko jardunbideak zehaztea, protokoloaren ereduaren eta ikuspegiaren arabera, hala badagokio.</p> <p>D) Eremu bakoitzari dagokion esku hartzeko formula edo esku-hartze plan espezifikoa deskribatzea.</p>

III. DATUEN TRATAMENDUA

- Informazio kuantitatiboa (modu anonimoan) nola bilduko den eta zer aldagai erabiliko diren.
- Informazioa norik bateratuko duen (gomendagarria da erabakia tokiko koordinazio mahaietan hartzea) eta zer maiztasun eta helbururekin bidaliko dioten informazio hori protokoloaren sinatzaileek.
- Tokian tokiko kasuren batekin koordinazioa hobetzea eskatzen duen arazoren bat gertatuz gero: nola jaso behar den emakumeen berariazko onespina eta ea beharrezkoa den emakumeon datu pertsonalak bildu eta ematea, aintzat hartuta, betiere, kasuari dagokion Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko araudia bete behar dela.
- Udalaz gaindiko eragileren batekin koordinazio arazoren bat gertatuz gero: nola helaraziko den gertakari hori tokiko koordinazio mahaitik NABlra, azken horrek baitu koordinazioaren ardura Nafarroako Foru Komunitatean.

IV. TOKI ENTITATEAK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI EMAN BEHARREKO ERANTZUN PUBLIKOA. JARDUTEKO PROZEDURA.

Emakumeen kontrako indarkeria mota guztiak gaitzetsi behar dira publikoki. Toki entitateak aukera izan dezan gaitzespen hori urteko 365 egunetan adierazteko, indarkeria hori festa gunetan gertatzen denean ematen den erantzuna alde batera utzita (7. atalean aurkezten da egoera horietarako protokolo eredu espezifiko), protokoloak atal honetan deskribatuko du **zer prozeduraren arabera arituko den baldin eta emakumeen kontrako indarkeria biktimen heriotzarekin bukatzen bada edo indarkeria kasu oso larriak badira** (bizirik atera diren biktimek zauri larriak dituztenean edo sexu erasoak izan direnean, adibidez, bortxaketak).

Ohar garrantzitsua: Emakumeen kontrako indarkeria kasu larrietan edo hildako biktimekin bukatzen direnean, gomendatzen dugu udal protokoloa aktibatu aurretik NABlri gertatutakoaren berri ematea, eta horrekin koordinatzea, kasu horietarako jarduketa protokolo espezifikoak baitu.

Kasu horietan aritzeko prozedurari dagokionez, atal horretan jaso beharko da:

- Emakumeen kontrako indarkeriaren zer kasutan aktibatuko den, zehazki, erantzun publikoaren prozedura.
- Kasuari buruzko informazio ofiziala biltzea (udaltzaingoari edota udaleko gizarte zerbitzuei informazioa eskatzea, etab.).
- Biktimarekin eta horren ingurukoekin harremanetan jartzea, erasoak eragindako premiei arreta emateko (berehala, arreta soziala, psikologikoa eta juridikoa) eta gaitzespen publikoko ekintzak egiteko baimena eskatzeko.
- Tokiko koordinazio mahaiaren ezohiko bilera deitzea, erasoaren balorazioa eta abian jarri beharreko jarduketan plangintza egin dezan.
- Toki entitateak arbuio adierazpen ofiziala egin eta onetsi beharko du, eta gaitzespena adierazteko elkarretaratze ofiziala deituko du.
- Esku hartzeko prozedura honen barruan sartzan ahal dira egoki irizten zaizkion gaitzespen ekintza publiko guztiak (omenaldiak kaltea erreparatzeko modu gisara, kanpainak, ekitaldi publikoak edo elkarretaratzeak data berezietan, hala nola azaroaren 25ean, etab.)

Ohar garrantzitsua: Emakumeen kontrako indarkeria kasu oso larrietan edo hildako biktimekin bukatzen direnean, balorazioa eta koordinazioa tokiko koordinazio mahaietan egin behar da, baina komenigarria da erantzun publikoa erakundeak berak egitea (udalak, mankomunitateak edo partzuergoak).

Adierazpenari dagokionez:

- Pertsona bakar bat ezarriko da komunikabideekiko mintzaide gisa, eta behar bezala berretsi eta egiaztaturiko informazioa soilik jakinaraziko da publikoki, betiere biktimarekiko errespetuz.
- Toki entitate txikietan, arreta berezia jarriko zaio emandako informazioari, bizirik atera den biktimaren intimitaterako eskubidea babesteko, eta jendaurrean jartzeagatik berriro biktima bilakatzea eragozteko.
- Indarkeria gaitzesteko mezu argi eta homogoneoa igorriko dute protokoloa sinatu duten alde guztiek.
- Informazioaren abiapuntua izanen den analisiak aintzat hartuko du desberdintasuna eta genero diskriminazioa direla indarkeriaren kausak, eta indarkeriarekin bukatzeko bide bakarra berdintasunaren bidean lan egitea dela.
- Komenigarria da arduradun politikoek, publikoki agertu, beren iritzia eman edo komunikabideen eta herritarren aurrean hitz egin baino lehen, beren mezua alderatzea edo berdintasun ataleko aholkularitza teknikoak jasotzea. Horrela ziurtatuko da aditzera emandako mezuak benetako datu eta informazioetan oinarritzen direla, eta berdintasunaren pedagogiarekin bat datozela.

V. SINADURAK

Protokoloan parte hartzen duten erakundeak ordezkatzeko dituzten pertsonen sinadurak.

VI. ERANSKINAK

Atal honetan erantsiko da interesgarritzat jotako informazio guztia, hala nola datu pertsonalak jasotzeko edo lagatzeko eskabide orriak, baliabide batetik bestera bideratzeko fitxak, informazio interesgarria, etab.

6

protokoloa
ezartzeko, eta
horren jarraipena
eta ebaluazioa
egiteko
mekanismoak

Aurrez esan bezala, indarkeriaren arloko jarduketa koordinatzeko tokiko protokolo bat egitea bezain garrantzitsua da protokolo hori ezartzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea, haren helburuak eraginkorki betetzen direla bermatze aldera. Hori dela eta, atal honetan zenbait mekanismo proposatzen dira protokoloa ezartzeko eta horren jarraipena egiteko. Halaber, horretarako gakoak diren tresna batzuk aipatzen dira eta proposatutako ebaluazio sistema azaltzen da.

6.1. PROTOKOLOAREN JARRAIPENA: TOKIKO KOORDINAZIO MAHAIK

Protokoloa ezartzeko eta horren jarraipena egiteko xedez, protokoloaren barnean jasoko da, al bait modurik zehatzenean, Tokiko Koordinazio Mahaiak (hemendik aurrera, TKMak) sortzeko eta abian jartzeko prozedura. Lurrealde jakin batean indarkeriaren arloko jarduketa sisteman parte hartzen duten profesionalak bitzeko guneak dira TKMak, eta honako hauek dira horien betekizunak, besteak beste: protokoloaren jarraipena egitea; profesionalak koordinatzea; lankidetzan jardutea; prebentzio eta sentsibilizazio ekintza eraginkorrak garatzea, parte hartzea bultzatzen dutenak eta talde zehatzetan arreta jartzen dutenak, eta, oro har, bizirik atera diren indarkeriaren biktimei beren herrietan ematen zaien erantzuna hobetzea eta moldatzea.

Esperientziak egiaztatzen du *“TKMen eragina horiek ezartzen diren tokiko esparrutik harago hedatzen dela; izan ere, haien emaitzei esker, jardunbide egokiak partekatzen ahal dira beste arlo batzuetan, hala nola osasunean,*

enpleguan, gizarte zerbitzuetan eta segurtasun indarretan; eta beste udalerrri batzuetara eramaten dira (...). Gainera, TKMen jardunari, horietan parte hartzen duten pertsonen lanari eta emakumeekin ezarritako harreman zuzenei esker, eskualdeetako jarduketa protokoloak eguneratu eta hobetu dira”⁵.

⁵ Core Proiektua, Genero Indarkeriaren aurkako Tokiko Koordinazio Mahaiak bultzatzeko eta abian jartzeko gida, Murtziako Eskualdeko Gizarte Politikako Zuzendaritza Orokorra, 2015.

TKM-ak: describapena, enginkizunak eta osaketa

ZER DIRA TKM-AK?

TKMak protokoloa eraginkor bilatzeko egiturak dira. Toki entitatean presentzia duten eta zuzenean edo zeharka emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez inplikaturik dauden arlo guztiak daude horietan ordezkatuta.

Protokoloan parte hartzen duten instituzioak eta elkarteak askotarikoak direnez baliabideei, xedeei, eginkizunei eta prozedurei dagokienez, premiazkoa da gune komun hori sortzea, ordezkatutako arlo guztien lan ildoan berri izateko eta, hortik abiatuta, jarduketak koordinatzeko.

EGINKIZUNAK

- o Protokoloa eta batera aritzeko prozedura ezagutzea (presako jarduketetarako zein presakoak ez direnetarako).
- o Protokoloan jasotako neurriak abian jartzea eta protokoloaren aldizkako jarraipena egitea.
- o Irizpideak ezartzea hautemate goiztiarrerako, koordinazioa hobetzeko eta arrisku handiko kasuak dagozkien eragile arduradunengana azkar bideratzeko.
- o Koordinazioan izaten ahal diren desorekak hautematea, eta beharrezko zuzenketak txertatzea edo proposatzea.
- o Toki entitatean, emakumeen kontrako indarkeriak duen eragina ezagutzea, aztertzea eta horren berri ematea.
- o Toki entitatera moldatutako estrategiak bultzatzea indarkeriarekin lotutako sentsibilizazioaren eta prebentzioaren arloetan, horiek garatzeko lankidetzan jardutea eta, azkenik, horien eragina ebaluatzea.
- o Protokoloaren berri emateko ekintzak egitea, toki entitateko berdintasun arloko Komunikazio Planaren barruan.
- o Protokoloaren esparruan egindako lanari buruzko informazio garrantzitsuen (datuak, kanpainak, ikerketak, etab.) berri ematea NABlri, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta, hala badagokio, beste eragile batzuei, emakumeen elkarteak, talde feministak eta herritarrek barne.
- o Tokiko protokoloan ezartzen eta onartzen diren gainerako eginkizun guztiak.

TKM-EN OSAERA

Arreta sisteman parte hartzen duten eta toki entitatean presentzia duten eragile guztiek egon behar dute ordezkatuta TKMetan. Mahaikideen ezaugarriei dagokienez, komeni da, batetik, profil teknikoa eta erabakimena izatea, eta, bestetik, mahaikide guztiek antzeko maila hierarkikoa edo funtzionala izatea.

TKMen osaketa tokiko entitatearen nolakotasunaren arabera izan bada ere, jarraian proposatzen da zer eragilek egon behar luketen, gutxienez, Mahaian:

- Berdintasuneko zinegotziak (arduradun politikoak eta teknikariak).
- Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldeak (BAIT).
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
- Toki entitatean presentzia duten segurtasun indarrak (Udaltzaingoa, Foruzingoa, Polizia Nazionala edota Guardia Zibila).
- Osasun etxea.
- Interesa duten beste udal baliabide batzuk, toki entitatearen arabera (Emakumeentzako Arreta Juridikoko Zerbitzua, ikastetxeak, Enplegu Bulegoa, etab.).

Gogorazi nahi dugu udalaz gaindiko eragileei dei egiteko NABI izanen dela bitartekaria, hala xedatzen baita Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioan.

Berdintasun arloko eskumen politikoa duen pertsona izanen da TKMaren presidentea; idazkari lanak, berriz, berdintasun arloko teknikari batek egingen ditu. Berdintasun arloko teknikari bati egokitu zaio, orobat, TKM dinamizatzea eta koordinatzea.

TKM-en sorrera

TKMak instituzionalizatzea gomendatzen da, **kide anitzeko organo** bat sortuz, TKMei egonkortasuna emateko, hartzen dituzten erabakiak sendoagoak izan daitezten eta protokoloa eraginkorki garatzen lagun dezaten, eta, horrez gainera, Mahaiak osatzen dituzten pertsonen jarraitasuna bermatze aldera.

Hona hemen TKM bat sortzeko prozesuaren unerik garrantzitsuenak:

DEIALDIA

TKMko kideak izaten ahal diren pertsoneri dei ofiziala egitea; deialdi horretan adierazi beharko zaie ekimena zertan datzan, zein diren TKMaren xedeak eta pertsona horiek Mahaiaren barruan zer eginkizun izanen lituzketen. Halaber, TKMan parte hartzeko teknikaria izendatzeko eskabidea igorriko da (baita ordezko batena ere).

- o Deialdia alkatetzak eginen du. NABIk aldeztatik jakinarazi izanen die III. Akordioaren Jarraipen Batzordean presentzia duten udalaz gaindiko erakundeei TKMa abian jarriko dela, eta haien partaidetza eskatzen dela.
- o Toki erakundeko berdintasun atalak proposatzen ditu TKMko.

ARAUTZEA

TKMaren sorrera onestea eta arautzea.

- o Egintza hori alkatetzaren ebazpen bidez, Tokiko Gobernu Batzordearen akordio bidez edo dagokion beste prozeduraren baten bidez gauzatuko da.
- o Agiri horretan, TKMan parte hartzen duten eragileen zerrenda jaso beharko da, adierazita zer pertsona izendatu diren eta nor diren presidentea, presidenteordea eta idazkaria. Halaber, TKMaren eginkizunak eta bilerak egiteko modua eta maiztasuna zehaztuko dira (ohiko bilerak urtean bi aldiz egitea gomendatzen da).

ERAKETA

TKMko presidenteak hilabeteko epean dei eginen die, gehienez ere, TKMko kideei, Mahaia ofizialki eratzeko.

KOMUNIKAZIOA

TKMa eratu dela jakinaraziko zaie toki entitateko gobernu organoei, Berdintasun Atalari, Berdintasun Batzordeari, Emakumearen Kontseiluari eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuari.

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

TKMa lanean hasi bezain laster, genero berdintasunari eta emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza saio bat egitea gomendatzen da, protokoloan landuko den esku-hartzearen esparrua bateratzeko.

TKM-ek protokoloa ezartzeko eta horren jarraipena egiteko tresnak

ALDIZKAKO BILERAK

TKMa sortu ondoren, aldizkako bilerak eginen ditu (urtean ohiko bi bilera), aldez aurretik ezarritako lan plangintzan oinarrituta.

URTEKO LAN PROGRAMA

Urteko lan programa berdintasun atalak proposatuko du; ondoren, TKMak baliozkotu eta onetsiko du. Programa horren bidez protokoloa abian jartzea bermatuko da, bai eta horren jarraipena ere. Lan programak aurrekontu zehatz bat izan beharko du, eta TKMan ordezkariak duten eragile guztiek izanen dute erantzukizuna.

TKMan hartutako konpromisoak bilera bakoitzean egin beharreko aktan jasoko dira; akta hori egin ondoren, mahaikideei igorriko zaie beti, hurrengo bileran behin betiko onartu baino lehen ekarpenak egin ditzaten.

DATUAK BILTZEKO SISTEMA

TKMek irizpideak eta prozedura bat zehaztuko dituzte emakumeen kontrako indarkeriaren ezaugarriei buruzko informazio kuantitatiboa eta anonimoa partekatzeko; honako hau izanen da horren xedea: informazio eguneratua eskuragarri izatea toki entitatean indarkeriak duen eraginari, ezaugarriei eta bilakaerari buruz, eta indarkeriari aurre egiten zaion moduari buruz ere bai. Gainera, informazio horren gaineko erabaki hauek adostu beharko dira: zer eragilek bateratuko duen, zer maiztasunez bidaliko dioten, zer aldagai mota jaso behar diren eta zer tresna baliatuko diren horretarako, besteak beste. Informazio horri esker, protokoloaren jarraipeneko urteko txostenak egiten ahalko dira, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arauak betez, betiere.

Lan hori egiteko, TKMko kide guztiek eskura izanen duten fitxa bat prestatuko da, eta kasuak erregistratzeko balioko du. TKMko kide guztiek nahitaez bete beharko dute fitxa hori.

URTEKO JARRAIPEN TXOSTENA EGITEA ETA HEDATZEA

Urtero, urteko lan programatik abiatuta, TKMak protokoloaren urteko jarraipen txosten bat onartuko du. Txosten hori berdintasun atalak eginen du, TKMko kideek emandako informazioan oinarrituta. Hona hemen txosten horrek jaso beharreko informazioa:

- o Urteko jarraipen txostenak prestatzea, toki entitatean emakumeen kontrako indarkeriak izandako eraginari buruz (salaketak, eragileek artatutako kasuak, presako esku-hartzeak, bideratzeak, etab.). NABI du, salaketa polizialen erregistroaren arduradun gisa, informazio hori guztia toki entitateari emateko konpromisoa, bai eta artatutako biktimei buruz edo bere eskumeneko baliabideetara jo duten pertsonei buruz eskura duen bestelako informazioa ere.
- o Protokoloan parte hartzen duten erakundeek haren esparruan gauzatu dituzten jarduketaren deskribapena.
- o Protokoloak toki entitatean duen eragina, eta hobetzeko arlo gisara identifikatu diren arloen zerrenda.

ALDERATZE ETA SOSTENGU TALDEAK

Zenbait gai sektorialki alderatzeko edo haietan sakontzeko beste espezializazio maila bat beharrezkoa bada, ad hoc lantaldeak deitzen ahalko dira. Lantalde horietan, toki entitateko edo udalaz gaindiko eragileek (NABI, Harrera Baliabideak, Foruzaingoa Laguntza Brigada, etab.) parte hartzen ahalko dute, TKMetan ordezkari izateko beharrik gabe, baldin eta horien partaidetza jasotzeko premia noizbehinkakoa bada. Talde horien lana baliagarria izanen da TKMari sostengua emateko eta erabakiak hartzeko garaian aholkularitza emateko.

GERTAKARIEN KUDEAKETA

TKMek mekanismoak ezarriko dituzte protokoloaren funtzionamenduan sortzen diren arazo berri emateko eta horiek konpontzeko. Berdintasun atala TKMaren informazioa koordinatzeko arduraduna denez, hark jaso, erregistratu eta kudeatuko ditu gertakariak.

Gertakariak bi motatakoak izaten ahal dira:

- Toki entitatearen esparruko gertakariak.
- Udalaz gaindiko entitateei eragiten dieten gertakariak; horiek NABIren bidez kudeatuko dira.

6.2. PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA

Jarduketa protokoloa ez da dokumentu itxia; izan ere, hura prestatu, ezarri eta jarraipena egiteko faseak ikaskuntza prozesu gisa planteatuta daude, baita toki entitatean emakumeen kontrako indarkeriaren arloko

arreta hobetzeko prozesu gisa ere. Horregatik, ebaluazioa protokoloa hobetzeko beste fase edo ziklo baten abiapuntu gisa sartzen da protokoloaren barruan.

PROTOKOLOAREN EBALUAZIOAREN EZAUGARRIAK

HELBURUAK

- o Helburuak zer mailatan bete diren jakitea.
- o Protokoloak ezartzeko eta jarraipena egiteko aurreikusten dituen mekanismoak, baliabideak eta prozedurak aztertzea, haien erabilgarritasunari eta funtzionamenduari erreparatuz.
- o Protokoloa abiarazi ondotik, arreta sisteman gertatu diren hobekuntzen eragina eta irismena zein den jakitea.
- o Aztertzea ea protokoloaren printzipio gidariek bideratu duten protokoloan parte hartzen duten arlo guztien esku-hartzea.
- o Baliabide eta zerbitzuetako langileen zein erabiltzaileen ebaluazioan oinarrituta, protokoloan aintzat hartzen ahal diren premia berriak eta hobekuntzak identifikatzea.
- o Sortutako ikaskuntzatik abiatuta, protokoloa ezartzeko beste fase bat martxan jartzea, protokoloaren indarra eguneratzeko aukera izateko.

PARTAIDETZA

- Protokoloaren ebaluazio proiektua aplikatzerakoan, bigarren mailako iturriak aztertzeaz gainera, interes talde hauen partaidetza lortu beharko da:
- o Toki entitatean emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren biktimak. Emakumeen protokoloari buruzko iritzia eta balorazioa nahitaezkoa da ebaluazioa egiteko, bai eta, ahal bada, haien seme-alabena ere.
 - o Toki entitatean lan egiten duten emakumeen elkarteena eta talde feministak.
 - o Protokoloa sinatu duten eta protokoloa ezartzeko eta jarraipena egiteko mekanismoetan parte hartzen duten entitateak.
 - o Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitearekin lotutako baliabide eta zerbitzuetako langileak.

MAIZTASUNA ETA ERANTZUKIZUNAK

- o Protokoloaren jarraipena etengabea denez, lau urterik behin protokoloaren ebaluazioa egitea proposatzen da, haren eragina zein den aztertu ahal izateko.
- o TKMak du protokoloaren ebaluazioa abiarazteko ardura, baina proiektua koordinatzea udaleko berdintasun atalari dagokio.
- o Gainera, protokoloaren kanpo ebaluazio bat egitea ere gomendatzen da, egokitza jotzen den unean.

7

emakumeen
kontrako indarkeria
kasuetan
esku-hartzea
koordinatzeko
protokoloen ereduak

Nafarroako toki entitateei lana errazte aldera, atal honetan protokoloen bi eredu eta jarduketa prozedura bat aurkezten dira. Eredu horiek erreferentzia eta orientabide gisa baliagarri izan nahi dute toki entitateek beren protokoloak egiten dituztenean. Nolanahi ere, protokoloak Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioaren esparruan baliozkotu ahal izateko, EKIALean jasotakoarekin bat etorri beharko dute.

Hona hemen aurkezten ditugun ereduak:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DELA-ETA JARDUTEKO TOKIKO KOORDINAZIO PROTOKOLOAK

Hau da gida honetan proposatu eta garatu dugun protokolo eredu. Udaletako Berdintasun Atalen Lana Planifikatu, Kudeatu eta Ebaluatze-ko Ibilbideren esparruan lan egiten duten toki entitateentzat egin da, baldin eta espezializatutako langileak dituen berdintasun atala badute.

Ikusiko den bezala, protokolo honen edukiak dagoeneko jorratu dira gida honen beste atal batzuetan. Hala, proposatutako protokolo eredu bi zatiz osatzen da: lehen zatia orokorra da, hots, protokoloaren esparru orokorra aintzat hartzen da, eta toki entitate bakoitzak aztertu beharko dituen idazketa proposamen eta gomendioez osatzen da; bigarrena, berriz, askoz espezifikagoa da, esku-hartzearen arloaren araberrako jarduketa protokoloari dagokio, baina edukiak modu orokorrean azaltzen dira soilik, toki entitate bakoitzak jorratu eta zehaztu behar baitu.

Nolanahi ere, gaikuntza egin ondoren, tokiko protokoloa prestatzeko prozesuan gertatuko diren sinergiekin eta bat-etortzeekin eraldatuko dute, egiazki, emakumeen kontrako indarkeriari ematen zaion erantzuna. Horregatik da hain garrantzitsua lan dinamika horiek sortzea eta hemen proposatzen den eredu aholkularitza tresna gisara baliatzea, bai prozesuan eta bai erabakiak hartzean.

JARDUKETA INSTITUZIONALAREN TOKIKO PROTOKOLO EREDU BAT FESTA GUNEETAKO ERASO SEXISTETARAKO

Tokiko protokolo eredu hau prozedura proposamen bat baizik ez da, festa guneetan gertatzen diren eraso sexistak direla-eta instituzioek eman beharreko erantzunari dagokiona; une horietan sortzen ahal diren egoeretan esku hartzeko modua zehazten du. Edozein entitaterentzat balio izatea da asmoa, haren neurria gorabehera, entitateak berak baitu hemen proposatutako jarduketak bere premietara moldatzeko aukera.

Eredu hau prestatzeko, gure komunitateko toki entitate batzuetan egin diren protokoloak hartu dira aintzat, baita Nafarroako Toki Entitateetako Berdintasun Teknikarien sareak egindakoak ere.

JARDUKETA IBILBIDEA HILKETA KASUETARAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EGOERA LARRIETARAKO

Azkenik, edozein toki entitaterentzat erabilgarria izaten ahal den gutxieneko jarduketa prozedura bat aurkezten da. Honako hau du xede: modu oso praktikoan bideratzea toki entitateak nola esku hartu behar duen emakumeen kontrako indarkeria dela-eta gertatutako hilketak bortitzen edo zauri larrien kasuan. Erabilgarria izan nahi du biztanle kopuru txikiagoa eta lan horretan laguntzeko baliabide espezializatu gutxiago dituzten toki entitateetarako, aintzat hartuta horrelakoak direla Nafarroako Foru Komunitateko herri gehienak, Komunitateak landa izaera nabarmena baitu.

Nolanahi ere, horrelakorik gertatuz gero, tokiko edozein entitate NABIREkin harremanetan jartzen ahal da, aholkularitza eskatzeko.

7.1. TOKI ENTITATE BATEAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DELA-ETA JARDUTEKO TOKIKO KOORDINAZIO PROTOKOLOAREN EREDUA

I. AURKEZPENA

Emakume izaeraren diskriminazioan oinarritutako emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, egungo gizartean gertatzen diren urratze ohikoenetako bat. Abusu horiek oinarritzko eskubideei eragiten diete, hala nola bizitzeko eskubideari, osotasun fisiko eta mentalerako eskubideari eta tortura edo tratu iraingarririk ez pairatzeko eskubideari. Hala, emakumeen aurkako indarkeriak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarritzko printzipioa kaltetzen du, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre egitekoak (aurrerantzean EKIAL), Zioen Azalpenean adierazten duen gisara.

Tokiko entitateak dira herritarrengandik gertuen dauden erakundeak;

horrenbestez, badute emakumeen kontrako indarkeriaren arazoaren berri, eta jokabide aktiboa dute haren inguruan. Horregatik egin da Toki Entitatean Emakumeen Kontrako Indarkeria dela-eta Jarduteko I. Koordinazio Protokolo hau, hain zuzen ere, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko arreta hobetzen jarraitzeko, eta tokiko entitatearen jarduketan eremu guztien esku-hartzea araudiak ezarritako aldaketan arabera moldatzeko. Protokolo honen bidez, sinatzaile guztien konpromiso bikoitza adierazten da: batetik, bizirik atera diren emakumeak eta beste biktima batzuk, seme-alabak, adibidez, beren kontrako indarkeriatik aske bizitzeko baldintzak sortzea, eta, bestetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra eta egiazkoa lortzen laguntzea.



Gomendioak

- Emakumeen kontrako indarkeriak toki entitatean duen eraginaren diagnosian jasotako datuak sartzea, eta arazo horri aurre egiteko abiarazi diren tokiko politikak aipatzea.
- Aurretik koordinazio protokolo bat badago, protokolo zaharra berrikusteko eta hau prestatzeko arrazoiak ematea.

II. TOKI ENTITATEAREN AKORDIOA

X eko Udaleko udalbatzak, X eguneko saioan erabaki du X-(e)n Emakumeen Aurkako Indarkeria dela-eta Jarduteko I. Koordinazio Protokoloa onestea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1. artikuluari jarraikiz, eta jendaurrean egoteko epea inork erreklamaziorik, kezarik edo oharatarazpenik aurkeztu gabe iraganik, Protokolo hau behin betiko onetsi da eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

X(e)n, XXX(e)ko XXXXXXaren XXX(e)(a)n, Alkatea

A) HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Protokoloa sinatzen duten pertsonak zerrendatu, haien erantzukizuna eta ordezkatzeko duten udal atala, erakundea edo elkarte adierazita.

B) HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

1. Emakumeen kontrako indarkeria globala eta egiturazkoa da; horrenbestez, gertakari isolatuz harago doa. Patriarkatuaren izaera unibertsalak azaltzen du zergatik gertatzen den emakumeen giza eskubideen urraketa hori, maila desberdinetan bada ere, munduko herrialde eta egoera ekonomiko, sozial eta kultural guztietan.
2. Emakumeen kontrako indarkeriak mota askotariko agerpenak, ondorioak eta formak ditu. Hona hemen horietako batzuk: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, sexu indarkeria mota desberdinak, feminizidioa, emakume eta neskatuen salerosketa, prostituzioa edota sexu esplotazioa, gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behar-

tua, emakumezkoen genitalen mutilazioa, eta emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna zauritzen dituzten edo zauritzen ahal dituzten bestelako indarkeria mota guztiak, baldin eta nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo estatuko zein Foru Komunitateko araudian agertzen badira.



Gomendioak:

Atal honen hasieran, honako hauek adieraztea:

- *Protokoloa non, noiz eta nola onetsi den.*
- *Protokoloa sinatzen duten pertsonen eta azken horiek ordezkatzeko dituzten erakundeen berariazko aipamena.*

3. Emakumeen kontrako indarkeriak, aipatutako edozein formatakoa dela ere, maila desberdinetako oinaze fisikoa, sexuala, psikologikoa edo ekonomikoa dakar biktima guztientzat.

4. Emakumeek aurre egin beharreko desberdintasun diskriminatzaileak direla bide, eta emakume izateagatik, emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza bat bizitzeko duten abiapuntua eta egoera desberdinak eta hierarkikoak dira.

5. Apirilaren 10eko 14/2015 Foru legeak, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre egitekoak, eta Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioak adierazten duten bezala, toki entitateek dute, erakunde publiko gisara, emakumeen eta gizonen

arteko berdintasuna lortzea sustatzeko erantzukizuna, baita indarkeriaren aurka aritzeko bidea ematen duen esku-hartze koordinatu bat sustatzeko ere, indarkeria hori egiturazkoa dela aintzat hartuta.

6. Emakumeen indarkeriari erantzuteko, esku-hartzeak diziplina anitzekoa izan behar du. Arau- eta programa-erreferentzia ugarik xedatzen dute autonomia erkidegoan, estatuan, Europan zein nazioartean erakunde

publiko guztiek dutela esku-hartze koordinatua eta jarduketa prozedura bateratuak sustatzeko erantzukizuna, horrela bermatzen baita arreta eta babes integrala, esparru guztietan genero ikuspegia barneratuta: gizartean, hezkuntzan, osasunean, polizian, arlo juridikoan eta judizialean. Jarraian, protokolo honen xedea lortzeko araurik garrantzitsuena aipatzen da, eta Nafarroako Foru Komunitateari dagokiona zehaztasun gehiagoz azaltzen da:

Foru esparrua

ARAUDIA

■ **14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre egitekoa.**

20. artikulua: “Foru Administrazioak detekzio, jarduketa eta deribazioarako protokolo bereziak prestatuko ditu bere lurralde esparruko toki entitateekin elkarlanean, eta prozesu horietan dituen inplikazioa eta eginkizunak kontuan hartuta. Protokolo horietan ildo batzuk ezarriko dira emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinen aurrean lan egiteko”.

Bigarren xedapen gehigarria: “Foru lege honetan aipatzen diren protokolo guztiak derrigorrez bete beharrekoak izanen dira sinatzen dituzten erakunde, pertsona eta entitate publiko edo pribatu guztientzat”.

ERREFERENTZIAKO AKORDIOAK ETA PROGRAMAK

■ **Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioa (2017).**

III. Akordioaren laugarren puntua: Indarkeria hautemateko erantzukizun instituzionala

Instituzio sinatzaileek, emakumeen kontrako indarkeria kasuak gertatu direla jakitean, prest daude jarduketa honako hauetara egokitzeke: baitetik, akordio honi erantsi zaizkion jarduketa koordinaturako protokoloetara eta, bestetik, Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dauden erakunde arteko koordinazioarako beste protokolo batzuetara, horien

artean, Sexu esplotazioarako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatoen kasuak koordinatzeko eta jarduteko Protokoloa (2016), eta Emakumezkoen mutilazio genitalari aurrea hartzeko eta aurre egiteko Protokoloa (2013), betiere akordioa sinatu duten aldean konpetentziak eta botere judizialaren independentzia albait gehien errespetatuz.

Halaber, erakunde sinatzaileak, berriro ere konpetentziak eta botere judizialaren independentzia albait gehien errespetatuz, prest daude Nafarroako toki entitateekin elkarlanean tokiko koordinazio-protokoloak gauzatzeko eta garatzeko, emakumeen kontrako indarkeria hauteman, behar bezala jardun eta bidera dadin.

■ **Udaletako Berdintasun Alorretako Lana Planifikatu, Kudeatu eta Ebaluatzeko Nafarroako Gobernuaren Ibilbidea (2015)**

Esku hartzeko 2. arloa: Emakumeen kontrako indarkeria.

Helburu hau jasotzen da: “emakumeen aurkako indarkeriaren arloa lantzeko, toki entitatearen jarduketa-eremuan dauden baliabideen egiazko koordinazioa ahalbidetzea, horretarako egokienak diren mekanismoak sortuz”.

Estatuko esparrua

■ **3/2007 Lege Organikoa**, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkorra izatekoa.

■ **1/2004 Lege Organikoa**, abenduaren 28koa, Genero indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurriei buruzkoa.

■ **7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen;** horren arabera, udalek jarduera osagarriak egiten ahal dituzte “emakumeen sustapenaren” arloko politiken esparruan.

■ **4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzkoa.**

Europako eta nazioarteko esparrua

- **Europako Kontseiluaren Hitzarmena emakumearen kontrako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeko eta horien aurka borrokatzeko. Istanbulko Hitzarmena (2011).**
- **Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda (Garapen Iraunkorrerako Helburuak) (2015)**
- **Emakumeari buruzko Beijingo munduko konferentzia (1995) eta Beijingo Adierazpena eta Ekintzarako Plataforma, 2015ean New Yorken berrikusia eta berretsia (Beijing+20).**
- **Emakumearen Kontrako Diskriminazio mota guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW) (1979, Espainiak 1983an sinatu zuen) eta horren Protokolo Fakultatiboa (2000).**
- **Haurren Eskubideen Nazioarteko Hitzarmena (1989).**



Gomendioak

- *Gida honetan aipatzen den araudia autonomiako, estatuko, Europako eta nazioarteko arau esparrura egokitzea edo hedatzea, tokiko maila barne, hala badagokio.*
- *Atal honetan, beste arau batzuen erreferentziak erantsen ahal dira. Eredu honetan, erreferentziako arauak eta programak soilik aipatzen dira, oso luzea litzatekeelako onartutako arau guztiak zerrendatzea zeharkako alderdiak (hala nola adina, desgaitasuna, sexu joera, jatorria, etab.) aintzat hartuko bagenitu.*

Horregatik guztiagatik, parte hartzen duten aldeek, duten ordezkariak baliaturik,

C) HONAKO HAU HITZARTU DUTE::

Lehenengoa. Protokolo hau sinatzen duten erakundeek eta eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzak egokiak izateko baldintzak sortzea, eta esku hartzeko jardunbide eta tresna bateratuak eta kalitatezkoak ezartzea, bakoitzari dagozkion eskumenak errespetatuz.

Bigarrena. Beharrezko baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak bideratzea, protokoloa indarrean jartzeko, aplikatzeko eta horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko; xede horrekin deitutako bileretan parte hartzea, eta urtero ezartzen diren lan programekiko konpromiso aktiboa hartzea.

Hirugarrena. Protokoloan parte hartzen duten pertsonen gaikuntza ematea berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloetan, prestakuntza ekintzak sustatuz edota pertsona horiek beste erakunde publiko batzuek deitutako prestakuntza ekintza edo ibilbideetan parte hartzea erraztuz.

Laugarrena. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduketa apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea (Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko) egokitzea, han ezarritako printzipio gidariei, emakumeen kontrako indarkeriaren kontzeptualizazioari eta arau horrek ezarritzen den esku-hartze ereduari dagokienez.

Bosgarrena. Ordezkatutako alde bakoitzak, bere eskumenen esparruan, konpromisoa hartzea, batetik, kalitatezko baliabide eta zerbitzu eskurgarriak jartzeko bizirik atera diren biktimentzat baliagarri; eta, bestetik, haien arreta integrala bermatzeko, guztiz osatu arte.

Seigarrena. Emakumeek indarkeriaren ondorioz pairatzen duten kaltea banan-banan osatzeaz gainera, erreparazio kolektiboa ere aintzat hartzea, indarkeria ez errepikatzen eta birbiktimizazioa eragozteko. Horretarako, protokoloa sinatzen duten eragileek gaitzespen publikoa adieraziko dute

emakumeen kontrako indarkeriaren agerpen eta mota guztien aurka.

Zazpigarrena. Tokiko Koordinazio Mahai bat sortuko da, analisirako eta lan egiteko kide anitzeko organo gisara, helburu nagusi hauekin: protokoloari eraginkortasuna ematea, koordinazioa erraztea, protokoloa ezartzea eta horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Honako hauek egonen dira Tokiko Koordinazio Mahaian:



Gomendioa

- *TKMa gida honetan ezarritako irispideen arabera osatzea.*

III. PROTOKOLOAREN HELBURUAK

OROKORRA:

—o Toki entitatean emakumeen kontrako indarkeria dela-eta esku hartzen duten erakunde eta eragile guztien partaidetza koordinatua, espezializatua, integrala, kalitatezkoa eta genero ikuspegiduna izan dadin bermatzea.

ESPEZIFIKOAK:

—o Mekanismoak sortzea emakumeen kontrako indarkeriari erantzuteko esku-hartzeetan parte hartzen duten arlo eta langileen arteko koordinazioa eraginkorra izan dadin eta toki entitatearen errealitatera eta berezitasunetara egokitu dadin.

—o Komunikazio eta koordinazio bideak sortzea toki entitatearen eta arreta integralaren sisteman erantzukizuna duten udalaz gaindiko beste erakunde batzuen artean.

—o Komunikazioa hobetzea, lankidetzarako aukerak sortzea eta konpromisoa areagotzea emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez,

Mahaiak urtean bi bilera egingen ditu, gutxienez. Gainera, bilera bereziak egiten ahal ditu, lehendakaritzak edo kideen bi herenek eskatuta. Horrelakoetan, idatziz eskatuko da. Eztabaidatzeko proposatzen diren gaien zergatiak erantsiko dira bertan. Lehendakaritzak, bilera eskatu eta ondoko hamabost egunetan deituko du bilera berezia. Gai zerrendan nahi-taez sartuko dira eskatu diren puntuak. Lehendakaritzak beste batzuk ere eranstean ahal ditu.

Zortzigarrena. Tokiko Koordinazio Mahaiari laguntza eta bestelako iritziak emateko, **lantalde teknikoak** deitzen ahalko dira. Lantalde horiek Mahaiak ezarritako lan programen eta hautemandako premien arabera sortuko dira.

Bederatzigarrena. Protokolo honek sinatzen den egunetik hartuko du indarra, eta indarraldi mugagabea izanen du. Urtero berrikusiko da, eta lau urterik behin kanpo ebaluazioa egingen zaio.

arreta prozesu osoan (prebentzioa, hautematea, arreta, babesa eta berreskuratzea) tokiko esparruan esku hartzen duten guztiengan.

—o Toki entitateak emakumearen kontrako indarkeriaren eraginari buruzko informazio egiazkoa, anonimoa, eguneratua eta alderagarria eskura izatea, eta arlo horri ekiteko beharrezkoak diren hobekuntzak identifikatzea.

—o Horretan aritzen diren alderdi guztiek erantzun homogenea ematea indarkeriari.

—o Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko esku-hartzea profesionalizatzea, esku-hartze hori lagungarria izan dadin bizirik atera diren biktimen ahalduntzeko prozesuan.

—o Indarkeriaren aurkako gaitzespen publikoa adieraztea eta herritarrak sentibilizatzea gai horrek toki entitatean duen eraginari buruz, emakumeen aurkako indarkeriari gainean dauden aurreiritziak eta estereotipo matxista eta misoginoak ezabatuz.

IV. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ARLOKO KONTZEPTUAK

Protokolo honek apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre egitekoak, erabiltzen duen terminologia erabiltzen du; horrenbestez, Protokoloan jasotako kontzeptuak eta definizioak bat datoz aipatutako Foru Legearekin, nahiz gainerako nazioarteko araudiarekin (hala nola Istanbulen Hitzarmenarekin), aplikagarriak diren heinean.

—o **Emakumeen aurkako indarkeria eta genero indarkeria:** Emakumeen kontrako indarkeria edo genero indarkeria da emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen den edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekartzen ahal duena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak. Neskato adingabeak ere emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak izaten ahal dira.

—o **Indarkeriatik bizirik atera diren biktimak:** Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima izanik, jasandako indarkeria prozesua gainditzeko oneratzeko prozesuari ekin diotenak dira indarkeriatik bizirik atera diren biktimak. Indarkeriaren biktimak izandako emakumeen seme-alabak ere indarkeria horren zuzeneko biktimak edota bizirik atera diren biktimak dira.

—o **Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak:** bortxazko ekintzen ondorioak zuzenean pairatu dituzten emakumeak dira, bai eta indarkeriazko ingurunean bizi diren seme-alabak ere, egoera ahulean egoteagatik indarkeria hori zuzenean jasaten dutenak.

—o Honako hauek dira emakumeen kontrako **indarkeriaren agerpenak:**

- **Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria.**

Indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sexuala, bikotekide duen edo izan duen gizonak edo berarekin antzeko harreman afektiboak izan dituenak, batera bizi direla nahiz ez, emakumearen kontra erabilitakoa, indarkeriazko ingurunean bizi diren haurrengan duen eragina barne hartuta.

- **Sexu indarkeriaren agerpen mota guztiak.** Emakume eta nesken kontrako sexu indarkeriak honako hauek hartzen ditu: sexu eraso, sexu abusua, sexu jazarpenera lanean edo hezkuntzan eta sexu abusua familian, komunitatean, hezkuntzan, lanean eta esparru publikoan.
- **Feminizidioa.** Bikotean edo bikote ohian eginiko homizidioak, eta generoak eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria erakusten duten beste krimen batzuk, hala nola sexu indarkeriarekin loturiko hilketak, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren eremuko hilketak, ohoreagatiko hilketak, neskatoen infantizidioa eta ezkonsariagatiko hilketak.
- **Emakumeen eta neskatoen salerosketa.** Emakumeak eta neskak erakarri, eraman, lekuz aldatu, hartu edo jasotzea, barne hartuta pertsona horien gaineko kontrola trukitzea edo eskualdatzea, mehatxuekin edo indarra edo bestelako hertsamen bideak erabiliz, bahituz, iruzur eginez, engainatuz, botere abusuaren bidez edo egoera ahul batez baliatuz, edo emakume edo nesken gaineko kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko dirua edo onurak emanaz edo jasoaz, helburua delarik sexu esplotazioa, laneko esplotazioa edo menpekotasunezko ezkontza.
- **Prostituzioa edo/eta sexu esplotazioa.** Beste pertsona batzuekin sexu harremanak diruaren truke izatea. Finantza onurak edo bestelakoak lortzea beste baten prostituzioaren esplotazioaren

bidez (horren barnean, ekintza pornografikoak edo material pornografikoak egitea), baita haren adostasunarekin ere.

- **Gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behartua.** Baimen libre eta erabatekorik izan ez duen ezkontza, hirugarrenen arteko akordio baten emaitza izan delako, emakumearen borondatea kontuan hartu gabe, edo mehatxupean edo bortxaz egiten delako, edo baimena emateko legez aurreikusitako adina baino gazteagoa delako emakumea.
- **Emakumeen genitalen mutilazioa.** Emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekartzen ahal duen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskaren baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa.
- Emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kaltetzen ahal duen beste edozein indarkeria mota, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko nahiz Foru Komunitateko araudian aurreikusirik dagoena.

V. ENFOQUE Y MODELO DE INTERVENCIÓN

Toki entitateak emakumeen kontrako indarkeriari erantzuteko duen moduak beti etorri beharko du bat jarraian aipatutako printzipio gidariekin. Horiek aplikatzeak esan nahiko du alderdi sinatzaileek, jarduteko garaian, aintzat hartzen dituztela ondoren printzipio bakoitzerako aipatutako jarraibideak, esku-hartzearen ikuspegi eta eredu berri bat osatzen baitute.

GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA, BABESTEA ETA SUSTATZEA:

Emakumeen giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzera

—o **Indarkeria** mota horiek guztiek emakumeentzako kalte edo oinaze **fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa** ekartzen dute, ekintza hauen ondorioz:

- **Indarkeria fisikoa:** Emakumearen gorputzaren kontrako indarkeriazko edozein ekintza, kalte fisikoa edo mina eragiten duena edo eragiten ahal duena.
- **Indarkeria psikologikoa:** Indarkeria psikologikoa: edozein jokabide, ahozkoa nahiz ez ahozkoa, emakumearengan oinaze, gutxiespen, bakartze motaren bat edo askatasuna mugatzea eragiten duena, hala nola mehatxuak, derrigortzeak, umilazioak edo laidook, menpekotasuna eskatzea, jazarpena, hertsapena edo irainak.
- **Indarkeria ekonomikoa:** Emakumearen eta haren seme-alaben ongizate fisiko nahiz psikologikorako baliabideak nahita eta legez justifikatu gabe kentzea, edo bikotearen esparruan bienak diren baliabideak erabiltzeko diskriminazioa.
- **Sexu indarkeria:** Onartu/baimendu gabeko edozein sexu ekintza, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne.

bideratuko da generoak eragindako emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jardun instituzional eta profesionala.

Esku-hartzea zehaztea:

- Protokoloaren esparruan, profesionalen jarduketa emakumeen zein haien seme-alaben giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzean oinarritu beharko da.
- Arreta integrala, koordinatua, azkarra (batez ere lehen saioan) eta

pertsonalizatua.

- Biziraun duten biktimen segurtasuna bermatuko da, horiek arriskuan jarri gabe.
- Ez da gutxietsiko biziraun duten biktinek adierazten duten arriskuaren pertzepzio indibiduala.
- Biziraun duten biktimak eta horien seme-alabak berriro indarkeriaren biktima izatea eragotziko da; horretarako, haien anonimotasuna bermatuko da, eta baliabide eta zerbitzu publikoetara jotzeko edota horietan parte hartzeko tramiteak azkartu eta murriztuko dira.
- Salaketa aurkezteko erabakia emakumeena da, eta horri buruz hartzen duten erabakia errespetatu beharko da. Doaneko arreta juridikoak informazio argia eta zehatza emanen du erabaki hori hartzeak dituen ondorioei buruz.
- Prozesu osoan zehar eta kanal egokien bidez jakinaraziko zaie emakumeei eskubidea dutela aske eta indarkeriarik jasan gabe bizitzeko.

“ARRETA EGOKIA” IZENENKO PRINTZIPIOA:

Emakumeen kontrako indarkeriari eman beharreko erantzuna erantzukizun instituzionalaren maila guztietara zabalduko da (prebentzioa, babesa, laguntza, biktimentzako erreparazioa eta justiziaren sustapena) eta xedetzat izanen du bermatzea emakumeen eskubideak egiaz gauzatzen direla.

Esku-hartzearen eredia zehaztea:

- Deskribatutako esku-hartzearen eredia protokoloa sinatzen duten alde guztiek hartu beharko dute aintzat, toki entitateek indarkeria kasuetan duten arreta sistemaren erantzuna homoginoa izan dadin eta koordinatuta egon dadin.

GENERO IKUSPEGIA, ETA BITARTEKARITZA BERARIAZ DEBEKATZEA:

Emakumeen kontrako indarkeriari erantzun ahal izateko, oinarrizkoa izanen da ulertzea generoko estereotipoak eta harremanak, haien erroak eta ondorioak. Biktimaren eta erasotzailearen arteko bitartekaritza berariaz dago debekaturik emakumeen kontrako indarkeria kasuetan, aplikatu beharreko oinarrizko araudian xedatuta dagoenez.

Esku-hartzearen eredia zehaztea:

- Ahal dela, emakumeei bakarka emanen zaie arreta, komunikazioa erraztu, intimitatea errespetatu eta biziraun duten biktimen eta horiekin batera dauden profesionalen artean konfiantzazko harremanak sortzeko egokiak izanen diren tokietan.
- Kontuan hartuko da emakumeek seme-alabekin batera jotzen dutela zerbitzu horietara eta, horrenbestez, toki egokiak prestatu behar direla, emakumeei arreta ematen zaien tokietatik bereizita.
- Aintzat hartuko da, orobat, emakumeek normalki ez dutela berariaz adierazten indarkeria jasaten ari direla, zailtasunak izan ohi dituztela indarkeriari buruz hitz egiteko edota izendatzeko, eta sarri askotan ez direla ohartzen indarkeria jasaten ari direla. Hala, indarkeria dagoelako susmorik bada, egoera hori hitzetan jartzea errazten duten galderak baliatuko dira, eta kasuari etengabeko jarraipena egiten zaio, beste adierazle batzuei erreparatuz (aurrekari pertsonalak, kontsultaren zioa, lesioak errepikatzea, lesioen eta horien jatorriaren arteko kongruentziarik eza, etab.).
- Protokoloa sinatzen duten entitate guztiek antolatuko dute arreta, indarkeria kasuei behar duten denbora guztia eman ahal izateko moduan.
- Esku-hartzearen arlo desberdinetatik ematen diren mezuak elkarren artean osagarriak izateko ahaleginak egin beharko dira,

espezializazio esparru bakoitzak marraztutako ildoak errespetatu, eta emakumeengan itxaropen faltsurik edo okerrik sortu gabe.

- Esku-hartzearen barruan, emakumeen kontrako indarkeriak eragiten dituen erruduntasuna, beldurra, lotsa eta estigma jorratuko dira, haien auto-estimua eta autonomia indartzeko eta emakumeek beren burua zaintzeko gaitasuna sustatzeko.
- Biktimaren eta erasotzailearen arteko bitartekaritza debekatuta dago emakumeen aurkako indarkeria kasuetan; horrenbestez, bikote terapia, familia bitartekaritza edo xede horrekin egiten den bestelako esku-hartze estrategiak ez dira hartuko protokoloaren barruko arreta ereduaren partetzat.

DISKRIMINAZIOAREN DEBEKUA ETA LURRALDE OREKA:

Erakunde publikoek bermatu egingen dute foru lege honetan aurreikusitako neurriak aplikatuko direla inolako diskriminaziorik gabe, hau da: biktimak bizi diren tokia, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste edozein iritzi, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, gaitasun ekonomikoa, sexu joera, genero identitatea, adina, osasun egoera, desgaitasuna, egoera zibila, migratzaile estatusa edo egoitzaren egoera administratiboa edozein izanik ere.

Esku-hartzeren eredia zehaztea:

- Esku-hartze profesionala emakume guztien berdintasuna aitortzetik abiatuko da; hortaz, debekatuta dago jarduketetan zuzenean edo zeharka generoan oinarritutako diskriminaziorik egitea, edota, indarkeriaz gainera, emakumeek pairatzen dituzten beste desberdintasun batzuetan oinarritutako diskriminaziorik, hala nola hizkuntzan, erlijioan, egoera edo gaitasun ekonomikoan, sexu joeran, genero identitatean, jatorri etnikoan, prestakuntzan, adinean, osasun egoeran, desgaitasunean, migratzaile estatusan edo egoitzaren egoeran.

- Esku-hartzean, uneoro aitortu beharko da emakume guztiek dutela eskubidea arreta, babes eta berreskuratze sare publikoko baliabide eta zerbitzuetara jotzeko, emakume horiek non bizi diren gorabehera.

INTERSEKZIONALITATEA ETA BESTE DESBERDINTASUN DISKRIMINATZAILE BATZUEI ARRETA EMATEA:

Instituzioen erantzunak bereziki hartuko du kontuan emakumeen kontrako indarkeriak beste desberdintasun eta diskriminazio iturri batzuekin duen intersekzioa, azken horiek abantaila gutxiagoko tokietan jartzen baitituzte emakumeak beren eskubideak eraginkorki baliatzeri dagokionez.

Esku-hartzeren eredia zehaztea:

- Posible egingen da bizirik atera diren biktimak beren ohiko hizkuntzan komunikatu ahal izatea langileekin, horretarako bitarteko egokiak jarrita (itzulpen profesionala eta presentziala).
- Emakumeek desberdintasun mota bat baino gehiagori aurre egin behar dietela aitortzetik abiatuta, esku-hartze profesionala asistentzialista, paternalista, misogino, matxista eta etnozentrkoa ez den maneran egingen da.

BEGIRUNEA ETA BIRBIKTIMIZAZIOARIK EZA:

Instituzioen erantzunak bideak ezarriko ditu ziurtatzeko biktimak begirunez tratatzen direla eta emakumea ez dela bi aldiz biktima bihurtzen. Neurriak biziraun dutenen autonomia eta askatasuna lortzera bideratzen direla bermatuko da, baita beren behar nagusiei erantzuten zaiela ere, biktimen seme-alabenak barne.

Esku-hartzeren eredia zehaztea:

- Laguntza prozesuak banan-banakoak izanen dira, emakume bakoitzak eta baliabide bakoitzerako erreferentziako pertsonak izan duten ibilbidearen berri izanda.
- Emakumeen denborak eta erritmoak errespetatuko dira, haien kontakizunei sinesgarritasuna emanen zaie eta haien erabakiak ez dira inoiz epaituko edo gutxietsiko.
- Erreparazio prozesuaren zati gisara, herritarrentzako neurriak proposatuko dira, kaltearen erreparazio kolektiboa xede dutenak.
- Indarkeriari arreta emateko tokiko sarean parte hartzen duten profesional guztiek ulertu behar dute indarkeriatik ateratzeko prozesuek atzerakadak izaten ahal dituela; hala, ez dira emakumeak horren erruduntzat joko, eta frustrazio sentimenduak alde batera utziko dira esku-hartzean.

ERANTZUKIZUNA:

Protokoloa sinatzen duten erakundeek prestakuntza prozesuak ezarriko dituzte emakumeak beren eskubideez egiaz baliatzen ahal direla ziurtatzeko ardura dutenek modu egokian jarduten dutela bermatzeko, esku-hartzea desbideratu gabe. Era berean, erantzukizunak eskatuko dira arreta falta dagoenean.

Esku-hartzeren eredia zehaztea:

- Protokoloa sinatzen duten erakundeek, gainerako baliabide publikoekin koordinatuta eta horiekin lankidetzan, bermatuko dute bizirik atera diren biktimei ematen zaien laguntza emakumeen aurkako indarkeriaren arloan espezializatua izan dadila, eta horretan aritzen diren langileei behar adinako gaikuntza dutela beren jardunean protokolo honetan proposatutako esku-hartze eredia aplikatzeko.

PARTE HARTZEA:

Indarkeriaren biktima diren emakumeen eta emakume erakundeen parte-hartzea sustatuko da jarduketak diseinatzean eta ebaluatzean; era berean, emakumeen kontrako indarkeriaren errealitateari dagokionez ahulagoak diren taldeak ordezkatzeko dituzten erakundeen parte-hartzea bultzatuko da.

Esku-hartzeren eredia zehaztea:

- Indarkeriaren biktimek protokoloaren esparruan jasotako arretaz duten iritzia eta balorazioa aintzat hartu eta bildu egingen da.

AURREKONTU BERMEA:

Protokoloa sinatzen duten instituzio publikoek finantzaketaren aldeko konpromiso argiari eutsiko diote, Protokoloan jasotako konpromisoak eraginkortasunez bete daitezela, betiere, beren eskumenak erabat errespetatuz.

Esku-hartzeren eredia zehaztea:

- Sinatzen duten instituzio publikoek finantzaketaren aldeko konpromiso argiari eutsiko diote, Protokoloan jasotako konpromisoak eraginkortasunez bete daitezela, betiere, beren eskumenak eta, batez ere, independentzia judiziala erabat errespetatuz.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ESKU-HARTZEAREN HELBURU GISA:

Emakumeen ahalduntzea ez da soilik emakumeek indarkeriaren bizipenari eta esperientziari beste toki batetik aurre egiteko tresna bat, baizik eta esku-hartze profesionalaren xede nagusia.

Esku-hartzeren eredia zehaztea:

- Protokolo honetan proposatutako esku-hartzearen ereduak bizirik atera diren biktima guztien ahalduntzea izanen du xede; hala, profesionalen esku-hartzeak emakumeak jarriko ditu erdigunean, eta horiek izanen dira indarkeriatik ateratzeko prozesuen protagonistak.

VI. JARDUKETAK, ESPARRUKA

**Gomendioak:**

- *Atal hau toki entitate bakoitzak egin behar du, bertako errealitatearen eta protokoloan parte hartzen duten erakunde eta eragileen arabera.*
- *Gida honetan jasotako edukietatik abiatuz, atal honetan, honako gai hauek jaso beharko dira: esku hartzeko prozedura orokorra, eremuka sailkatutako esku hartzeko prozedura, datuen tratamendua, eta emakumeen kontrako indarkeria kasuetan toki entitateak eman beharreko erantzun publikoa. Betiere, gogoan eduki beharko da eremu bakoitzean ezartzen diren jarduketek bat etorri behar dutela Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioak jasotako Jarduketa Bateratuko Protokoloan ezarritakoarekin.*

ADIBIDEA: ZER EDUKI IZAN BEHARKO DITU PROTOKOLOAK BERDINTASUN ATALAREN JARDUKETARI DAGOKIONEZ?

- **Esku-hartzearen esparrua (hautazkoa):** Sarrera labur bat, azaltzen duena zer lan egin duten berdintasun atalek emakumeen kontrako indarkeriaren arloan (ikus abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoak, 19.7 artikuluan ezarritakoa, non adierazten baita berdintasun arloko erakundeek bideratuko dituztela emakumeen kontrako indarkeriaren arloko programak eta

ekintzak, bai eta hobetzeko eremuak proposatu ere). Atal honetan, garrantzitsua da berdintasun atalak emakumeen kontrako indarkeriaren arloan eta, zehazki, prebentzioari, sentsibilizazioari eta lana koordinatzeari dagokionez egindako lana testuinguruan kokatzea.

- **Berdintasunaren arloak protokoloaren bitartekaria nor izanen den zehaztea.**
- **Berdintasun atalak zer eginkizun dituen protokoloan prebentzioari, sentsibilizazioari eta koordinazioari dagokienez.**

Prebentzioa eta sentsibilizazioa: Kanpaina instituzionalei atxikitzea, adibidez, NABIk antolatutakoei; sentsibilizazio kanpainak bultzatzea TKMko kideekin, emakumeen mugimenduekin eta beste kolektibo batzuekin batera; kanpainak bultzatzea Nafarroako beste toki entitate batzuekin batera; prestakuntza ematea hainbat eragileri eta formatu desberdinetan; ikerketa, etab.

Koordinazioa: Protokoloaren urteko jarraipen txostena egitea, TKMa dinamizatzea, udalerrian indarkeriari aurre egiteko hobekuntzak identifikatzea, etab.

ADIBIDEA: ZER EDUKI IZAN BEHARKO DITU PROTOKOLOAK OSASUNAREN ARLOKO JARDUKETARI DAGOKIONEZ?

- **Esku-hartzearen esparrua (hautazkoa):** Sarrera labur bat, emakumeen kontrako indarkeriak osasunean dituen ondorioak azaltzeko.

- **Nork hartzen duen esku:** Toki entitateko osasun zerbitzuen barruan, zehaztu beharko da nork hartzen duen esku emakumeen kontrako indarkeria hautemateko, horri arreta emateko eta bideratze lanetan. Lehen laguntza, pediatria eta arreta espezializatua (buruko osasuna, ginekologia, etab.).
- **Osasunaren arloak** protokoloaren bitartekaria **nor izanen den zehaztea.**
- Osasuneko eragilek zer eginkizun izanen dituzten protokoloan prebentzioari, sentsibilizazioari eta koordinazioari dagokienez.
- Esku hartzeko jarraibide espezifikoak, osasunaren arlorako (hala badagokio, protokoloaren eredu honetan proposatutako jarraibideetatik abiatuta).
- Osasunaren arloko jarduketaren plana/formula, bi mailatan:
 - 1. maila:** ezkutuko indarkeria (ez da esplizituki agertzen)
 - 2. maila:** Alarrialdiko arreta bi egoerari dagokienez: indarkeria fisikoa eta psikologikoa, eta sexu indarkeria.

VII. PROTOLOA SINATZEN DUTENEN SINADURAK

7.2. JARDUKETA INSTITUZIONALAREN PROTOKOLO EREDUA FESTA GUNEETAKO ERASO SEXISTETARAKO

Toki entitate bakoitzari dagokio bere agiria aurkeztea; horrela, bere esku-hartze testuinguruaren eta berdintasun politiken arloan duen ibilbidearen arabera gauzatuko da. Nolanahi ere, garrantzitsua da esku-hartzearen arau esparrua nabarmentzea eta berariaz aipatzea apirilaren

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek sentsibilizatorako kanpaina instituzionalak eginen dituzte, emakumeen kontrako diskriminazio eta indarkeriaren gaitzespen soziala sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko. Horretarako, behar diren bitarteko guztiak erabiliko dituzte populazio osoari helarazteko mezu horiek, eta, bereziki landa guneetako emakumeei, gazteei eta gizonezkoei, diskriminazioa eta indarkeria dakartzaten jarrerak alda daitezen.

Kanpaina horiek isla berezia izanen dute hedabide publikoetan,

I. ZIOEN AZALPENA

Emakume izaeraren diskriminazioan oinarritutako emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da. Toki entitateen ardura da, beste instituzioekin batera, emakumeei indarkeriarik gabeko bizimodu bat bermatzea; hori dela eta, gertakari horiei ematen dieten erantzunak sendoa eta sistematikoa izan behar du, ez baitira ekintza edo jokabide isolatuak.

Emakumeen kontrako indarkeria ingurune askotan gertatzen da, eta herritarrek emakumeen kontrako gero eta indarkeria mota gehiago identifikatzen dituzten arren, eta horiekiko gaitzespena adierazi, oraindik ere indarkeria mota asko normalizat jotzen dira eta ez dira hain erraz ikusten, festa guneetan gertatzen direnak, adibidez. Hori dela eta, aintzat hartuta festak pertsona guztiekiko begirunez bizi behar direla, ingurune horietan ezin da justifikatu gozatzeko modu sexistarik, androzentrikorik edo misoginorik, emakumeak diskriminatzen eta kaltetzen baitituzte. Hortaz, egoera horiek direla eta, toki entitateek jokabide aktiboa izan behar dute, indarkeriaren prebentziorako mekanismoak sortuz, gaitzespena ikusaraziz eta, gertatzen

10eko 14/2015 Foru Legea, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre egitekoa, bai eta horren 17. artikulua ere, “Sentsibilizazio sozialerako eta informaziorako neurriak” izenekoa, hau xedatzen baitu toki entitateetarako:

ikastetxeetan, eta gizarte, osasun, lan, kultura eta kirol zentroetan.

2. Horrekin batera, informaziorako kanpainak eta ekintzak eginen dira, emakumeek behar besteko informazioa izan dezaten haien eskubideez eta dauden baliabideez, eta arreta berezia emanen zaie talde hauei: landa guneetako emakumeak, migratzaileak, ijitoen etniakoak, desgaitasuna edo menpekotasuna dutenak, gizartean baztertuta, arriskuan edo egoera ahulean daudenak eta babes gabekia handiagoa izan daitekeen talde edo esparruak, horien artean, lan esparrua.

direnean, salatuz.

Gainera, udalerrien iraunkortasuna lortzeko, harremanen eredu berri bat eraikitzearen alde egin behar da; eredu berri horretan, berdintasun handiagoa egonen da, indarkeriarik ez da izanen, eta pertsona guztien ongizatea, zaintza eta bizi kalitatea tokiko agendaren erdigunean egonen dira. Prozesu horrek erakundeek konpromisoa eskatzen du, baina ez horiena bakarrik; izan ere, udalerrietako askotariko eragileen eta han bizi diren pertsonen multzoak parte hartu behar du, erantzukizunez, emakumeen kontrako indarkeria mota guztiak ezabatzeko, hau da: herritarrek, elkarteek taldeek eta kolektiboek. Gizonezkoen konplizitatea bereziki beharrezkoa da, gazteena zein adinekoena, berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko maskulinitasun ereduaren aldeko apustua egin dezaten; era berean, emakume guztien erantzuna behar dugu, eraso sexisten kontrako diskurtsoa eta jarrera herritarrengan baneratzeko.

II. HELBURUAK

OROKORRA:

- Jarduketa bateratu eta koordinatua egituratzea, festa guneetan gertatzen diren emakumeen kontrako indarkeria egoerei dagokienez udalak ematen duen erantzuna hobetze aldera.

ESPEZIFIKOAK:

- Eraso sexistekin lotutako prebentzioari, sentsibilizazioari, arretari eta komunikazioari dagozkien prozedurak sistematizatzea eta adostea.
- Festa guneetan eraso sexistei aurrea hartzea, ekiteko tresna eta estrategien bitartez.
- Herritar guztiei ematea emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko erantzukizuna.

III. GAKO TEORIKOAK

- Emakumeen kontrako indarkeriak emakumeen eta gizonen arteko botere harremanen desoreka adierazten du, eta oztopo handi bat da edozein gizarte demokratikoren garapenerako.
- Emakumeen kontrako indarkeria sozietate heteropatriarkalen egiturari agertzen den fenomeno bat da, eta gizonen emakumeen gainean berenganatutako nagusitasuna eta abusua justifikatu izan dituzten balio eta arau sozio-kulturaletan oinarritzen da. Indarkeria mota horiek normaltasunez jantzi dira, gizonen emakumeen gainean duten nagusitasuna rolen banaketa desberdin batekin lerrokatzen dela uste izan delako. Barnetik sortuak dira, beraz, eta elkarbizitza diseinatutako ereduaren azpian egonkortzeko elementu gisara jarduten dira. Beste modu batean esanda, kontrol sozialerako tresnak dira, desberdintasunei eusteko eta horiek iraunarazteko.
- Emakumeen kontrako indarkerien agerpenak eta horiek pairatzen dituzten emakumeen bizipen pertsonalak hainbat faktoreren mende

daude: adina, klase soziala, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, egoiliar egoera administratiboa emakume migratzaileen kasuan, edo bestelakoak, baldin eta emakume sektore zehatz batzuk egoera okerragoan jartzen badituzte eskubideez baliatzeko garaian.

- Emakumeen kontrako indarkeria ezabatze modu bakarra dago: generoan oinarritutako diskriminazioa ezabatzea. Emakumeak ahalduz funtsezko urratsa da indarkeriari aurrea hartzeko eta eragindako emakumeek bizirauteko; funtsezkoa da, halaber, haurrak, gazteak zein adinekoak berdintasunean eta askatasunean hezteak.
- Gizarte berdinoak lortzeko bidean aurrera egiteak eta teoria eta mugimendu feministaren ekarpenek azaltzen dute, neurri handi batean, emakumeen kontrako indarkeriak zilegitasuna galtzea, batetik, eta fenomeno hori giza eskubideen urraketa larri eta lehen mailako arazo estruktural gisara birkontzeptualizatzea, bestetik; horren ondorioz, esparru guztietatik erantzuna behar duen arazo bat da.

— **Emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa**, EKIALen arabera:

- Emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen den indarkeria, edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa, eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekartzen ahal duena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun gabetze arbitrarioak barne hartuta eta bizitza publikoan edo pribatuan gertatzen den aintzat hartu gabe.
- Honako hauek dira emakumeen kontrako indarkeriaren **agerpenak**: indarkeria bikotean edo bikote ohian, sexu indarkeriaren agerpen guztiak, feminizidioa, gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behartua, emakumeen genitalen mutilazioa, eta arlo honetako araudian aurreikusirik dagoen beste edozein indarkeria mota.
- Emakumeen kontra erabilitako indarkeria **motak**: indarkeria fisikoa, indarkeria psikologikoa, indarkeria ekonomikoa eta **indarkeria sexuala**.
- EKIAlek emakumeen kontrako indarkeriaz egiten duen definizioa zabalagoa da, eta mota gehiago aitortzen ditu estatuko arauak baino (1/2004 Lege Organikoa). Azken horrek genero indarkeriaren kontzeptua baliatzen du, eta indarkeria hori afektibitate harremanen eremura (bikotea eta bikote ohia) mugatzen du.

— **Festa guneetan, mota guztietako eraso sexistak** gertatzen dira; horri buruz, zenbait alderdi zehaztu behar dira:

- Eraso sexistak normalizat jo izan direnez, eta hala jarraitzen dutenez, sarri askotan jarrera horiek ez dira botere abusuztat hartzen, ezta larderiazko ekintzat ere. Gero eta onarpen gutxiago badute ere, eta gizartea horiek identifikatzen hasi den arren, oro har, eraso sexistak ez dira emakumeen

kontrako indarkeriarekin lotzen iruditegi sozialean. Hori dela eta, garrantzitsua da eraso horiei aurrea hartzea eta gertatzen direnean aurre egitea, justifikatuko edo zilegitzat joko dituen inolako egoerarik aintzat hartu gabe.

- Emakumeen osotasun pertsonalari eta askatasunari kalte egiten dioten jokabide guztiak dira eraso sexistak. Horrenbestez, honako hauek eraso sexistak dira: jazarpen fisikoen mota guztiak (indarkeriaz eta onartu gabe egindako musu, besarkada eta ukitze guztiak), ahozko jazarpena (irainak, iruzkin misoginoak, iraingarriak edo emakumeak objektu bilakatzen dutenak) eta ahozkoa ez dena (larderiazko ekintzak eta kontrolatzera bideratutakoak, besteak beste).
- Festa guneetan gertatzen ahal den eraso sexisten agerpenik larrietako bat indarkeria sexuala da. Honako mota hauek nabarmentzen ditugu:

• Sexu indarkeria deritzo **onartu/baimendu gabeko edozein sexu ekintzari**, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne.

• Emakumeen edota neskatuen kontrako sexu indarkeriaren agerpenak, berriz, **sexu eraso**, **sexu abusua** eta **sexu jazarpena** dira:

- **Sexu eraso**: Sexu askatasunaren aurkako delitua, indarkeriaz edo larderiaz egiten bada, eta biktimak onartu/baimendu ez badu. **Bortxaketa** sexu eraso bat da, eta koittoa baginatik, uzkitik zein ahotik gauzatzean datza edo lehenbiziko bi bide horietako batetik gorputz adarren bat edo

objekturen bat sartzean (Zigor Kodearen 179. artikulua).

- **Sexu abusua:** Sexu askatasunaren aurkako delitua, indarkeria edo larderiarik gabe egiten bada, baina biktimak onartu/baimendu ez badu.
- **Sexu jazarpena:** Sexu askatasunaren aurkako delitua, eta nagusitasun egoera batez baliatuz mesede sexualak eskatzeko jokabideak hartzen ditu barne.

IV. ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK

■ Eraso sexisten aurkako jarduketa guztiek jarraitu beharko diete irizpide hauei:

- Emakumea babestea eta informazioa konfidentziala izatea. Eraso adingabe baten aurkakoa bada, familiarekin harremanetan jartzea.
- Bizirik atera den biktimaren iritzia, bere intimitatea eta ekiteko garaian hartzen dituen erabakiak errespetatzea.
- Koordinazioz eta modu bateratuan aritzea.
- Erasotzailea identifikatzea.
- Zurrumurruek eragozteko edo mozteko, batez ere toki entitate txikietan.
- Biktima bigarren aldiz biktima ez bilakatzea.

■ Erreferentziako informazio komuna izatea:

- Larrialdiko arretarako telefonoa, eguneko 24 orduetan: 112 - SOS Nafarroa
- Informaziorako eta kontsultarako telefonoa: 016
- Herritarren kexei eta galderei arreta ematea (hautazkoa): udaleko berdintasun atalak berariaz prestatutako e-mail baten bidez egiten ahal da. Udal telefono berezi bat ere eranstean ahal da, poliziarenaz bestelakoa, kasu hauetan hara jotzeko.

V. PROTOKOLOA KUDEATZEKO EGITURAK

Festa guneean eraso sexistei aurrea hartzeko eta aurre egiteko protokolo bat prestatzeko, beharrezkoa da gizartearen parte hartzea, erantzuna osoa, eraginkorra eta bateratua izan dadin zenbait eragilek parte hartu behar baitute, udalaz gain. Hori dela eta, esku-hartzea (komunikazioa barne) modu

koordinatuan kudeatzeko zenbait gune proposatzen dira. Gune edo egitura horiek tokiko errealitatera egokitu behar dute.

1. TOKI ENTITATEAREN ESPARRUA: FESTETAKO ERASO SEXISTEN KONTRAKO MAHAIA

Zer den:

Parte hartzeko eta kontsultarako gune bat da; alkatetzak edo berdintasun atalak zuzentzen du, beste eragile batzuen partaidetzarekin, hala nola: alderdi politikoak, emakumeen elkarteak eta talde feministak, tokiko kolektiboak, herritarrak, zuzenean inplikaturako udal zerbitzuak, udaltzaingoa eta beste eragile batzuk, erabakitzen denaren arabera (dagoeneko existitzen diren egiturak erabiltzen ahal dira, Kontseilua edo Batzordea, esaterako, baina proposatutako izena erabiltzea gomendatzen da, egitekoa den esku-hartzea ikusarazteko).

Eginkizunak:

Etengabeko lanerako gune bat da, eta festen aurretik zein ondoren aritzen da. Prebentzioaren arloko eginkizunetaz eta kasurik larrienen analisia egiteaz gain, mahai honek udalean eraso sexistei ematen zaien erantzunaren berri izanen du, halakorik gertatzen den guztietan, eta herritarrak mobilizatzen lagunduko du, egoki irizten zaionean.

Berdintasun atalaren eginkizuna:

Berdintasun atalaren funtzioak esleituak dituen zinegotzigoa arduratuko da mahaia koordinatzeaz eta aholkuak emateaz, berdintasuneko teknikarien lankidetzarekin. Hona hemen atalaren eginkizun nagusiak: herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak diseinatzea, parte hartzaileak genero eta

berdintasun arloko gaikuntza jaso dezaten bultzatzea, festa gunetako eraso sexistei aurre egiteko baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa sortzea, etab. Berdintasuneko teknikaririk ez badago, garrantzitsua izanen da berdintasunaren arloan prestakuntza duten pertsonen aholkularitza teknikoak bilatzea.

2. TOKI ENTITATEAREN ESPARRUA: BOZERAMAILE BATZARRA

Zer den:

Udalean informazioa emateko eta erabakiak hartzeko espazioa da. Udalak izan beharreko jarrera ofiziala adosten du.

Eginkizunak:

Eraso sexistak direla-eta, komunikazio bateratua egiten du, eta nola jardun adosten du. Bozeramaile Batzarraren erabakiak eraso sexisten

kontrako mahaira eramaten dira, erantzuna bateratua izan dadin.

Berdintasun atalaren eginkizuna:

Bozeramaile Batzarrak berdintasuneko teknikarien aholkularitza jasotzen ahalko du, beste edozein prozeduratan bezala.

3. TOKI ENTITATEAREN ESPARRUA: KOMUNIKAZIOA KUDEATZEKO MAHAIA

Zer den:

Eraso sexistak direla-eta eman beharreko komunikazio ekintzak proposatzen dizkio Bozeramaile Batzarrari. Alkatetzak, Berdintasun Atalak eta Udaltzaingoa osatzen dute.

Eginkizunak:

- Mahaiari eta Bozeramaile Batzarrari laguntza teknikoak ematea komunikazio proposamenetan eta adierazpen instituzionaletan, festa gunetan sortutako kasu larrietarako edota hilketan bukatu diren kasuetarako. Alderdi politiko guztiekin adostuko da adierazpen ofizialaren eredia zein den, eta erantzun instituzionala zer kasutan eta nola ematen den.

- Kasuen analisia egitea eta erabakitzea noiz eman behar den erantzun publiko bat eta zer neurritakoa izan behar duen.
- Komunikazio ekintzak diseinatzea eta egitea: hedabideentzako informazioa, salaketa kartelak, akordioen eta adierazpenen testuak eta prentsa oharrak.
- Informazioa biltzea eta aztertzea, ondoren festa gunetako eraso sexisten kontrako mahaiari jakinarazteko.

Berdintasun atalaren eginkizuna:

Berdintasun Atalak eta horko teknikariek egin eta proposatuko dute eraso sexistak direla-eta udalak plazaratu beharreko komunikazioa; halaber, honako hau ere haren ardura da: protokolo hau aplikatzeari buruzko ebaluazioaren txostena egitea eta protokoloa zerbitzu, erakunde, kolektibo eta herritarrengana hedatzea.

VI. JARDUTEKO PROPOSAMENAK

1: ERASO SEXISTEN PREBENTZIOA

Festak prestatu aurretik, festa gunek emakumeentzako gunek aske gisara pentsatu behar dira, non eta ez den eraso sexistarik inolaz ere onartuko. Gainera, protokoloan parte hartzen duten alde guztiek ongi ezagutu behar dituzte, eta beren gain hartu, dagozkien erantzukizunak.

Toki entitatearen erantzukizunak:

- Festetarako berdintasun kanpaina garatzea, hauek guztiak baliatuta: adierazpenak, bandoak, kartelak txokoetan, tabernetan, dendetan eta jaietako programetan, esku gorria daramaten txapak, pegatinak, pankartak, jaietako zapiak, motxilak, etab.
- Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren kanpainan edo beste tokiko entitate, instituzio edo elkarteek bultzatutako kanpainetan parte hartzea.
- Eragile garrantzitsuenei prestakuntza ematea, horietako bakoitzak arlo honetan duen eginkizun zehatza aintzat hartuz.
- Festetan parte hartzen duten udal zerbitzuak koordinatzea.
- Aholkularitza ematea eta jarraipena egitea festetan, udalak zuzenean antolatu zein kontratatutako ekintzetan baliatzen diren hizkuntza eta irudiak sexistak izan ez daitezen.
- Autodefentsa feministako eta festa gunetan emakumeen ahalduntzea lortzeko ikastaroak antolatzea.
- Udaleko gunek arriskutsuen mapak egitea, bai eta horiek hobetzeko proposamenak ere, herriko emakumeen parte hartzearekin.
- Eraso sexisten kontrako jarraibideen gidak egitea.

- Genero adierazleak sortzea eta horien jarraipena egitea, festen ebaluazioa zein generoak festetan duen eraginaren ebaluazioa egiteko.
- Material berezia prestatzea talde jakinei (lagunarteak, gazteak, herritarrak, etab.) egiten zaizkien eraso sexistei aurrea hartzeko eta aurre egiteko.
- Jarduteko jarraibideak garatzea udal zerbitzuentzat eta kontratatutako zerbitzuentzat: udaltzaingoa, orkestra, animazio eta antzerki taldeak, kirol taldeak eta kirolariak, etab.

Protokolo honetan parte hartzen duten erakunde eta kolektiboen erantzukizunak:

- Toki entitateak antolatutako prestakuntzan parte hartzea, bai eta Festetako Eraso Sexisten Kontrako Mahaiak antolatutako sensibilizazio kanpainan ere, dela proposamenak eginez, dela deitzen diotenean kolaboratuz, unean uneko beharrian arabera.
- Eraso sexisten aurkako gaitzespena eta erantzuna festetako ekintza guztietara hedatzea.

2: HERRITARRENTZAKO JARRAIBIDEAK

2.1. Eraso sexisten kasuan

ERASO SEXISTAK

- o Komentario iraingarri edo umiliagarriak, ahozko abusuak, irainak, pertsona bati buruzko gutxiespen adierazpenak, etab.
- o Onartu gabeko kontaktu fisiko motak, nahi ez diren zirriak, etab.
- o Ikur sexista iraungarriak erakustea.

NOIZ EKIN

- o Erasoak zuk jasan baduzu.
- o Norbait gerturatzen bazaizu eraso diotela esanez, edo txosnetan, tabernetan edo kalean aurrez aipatutako egoeraren bat gertatzen dela ikusten baduzu.

ZERGATIK EKIN

- o Erasoak pairatu duen pertsona babesteko eta laguntza emateko.
- o Erantzuna koordinatzeko.
- o Eraso sexistak festa guneeetatik desagerrarazteko.
- o Hori egiteko erantzukizuna duzulako.

NOLA EKIN

- o Eraso sexistaren bat pairatzen baduzu, larrialdiko arreta eskatzen ahal duzu 112 telefonora deituz. Behar izanez gero, eskatu laguntza zurekin daudenei edo zure inguruan lanean ari direnei.
- o Beste pertsona bati eraso badiote: entzun, lagundu eta errespetatu emakumearen erabakia eta bere intimitatea. Bermatu konfidentziasuna. Galdetu eraso duten emakumeari ea laguntza behar duen. Baietz esaten badu, lagundu eta haren ondoan egon. 112 - SOS Nafarroa telefonora deitzen ahal da, nahi izanez gero, biktimak arreta jaso dezan eta dituen baliabideei buruzko informazioa eman diezaioten.

2.2. Sexu erasoen kasuan

SEXU ERASOAK

- o Jasaten dituen emakumea behartzen duten eta bere sexu askatasunari erasotzen dioten jokabide sexualak dira.

ZERGATIK EKIN

- o Berehala esku hartu ahal izateko.
- o Biktima babesteko eta laguntza emateko.

NOIZ EKIN

- o Eraso mota horri aurre egiten badiozu, gertatu dela badakizu, ikusi baduzu edo norbait laguntza eske gerturatzen bazaizu.

NOLA EKIN

- 1. Sexu erasoren bat pairatzen baduzu** larrialdiko arreta eskatzen ahal duzu 112 telefonora deituz. Behar izanez gero, eskatu laguntza zurekin daudenei edo zure inguruan lanean ari direnei.
- 2. Sexu eraso bat gertatu bada**, gerturatu eraso pairatu duen emakumearengana eta galdetu ea laguntza behar duen. Inor laguntza eske gerturatzen bazaizu, eman lehenasuna pertsona horri.
 - o Entzun arreta eta begirune handiz. Eman behar duen laguntza emozional guztia. Ez utzi bakarrik.
 - o Berehalako laguntza behar badu, deitu telefono honetara: 112 - SOS Nafarroa
 - o Egon berarekin polizia iristen den eta erasotzailea identifikatzen duten arte.
 - o Ez badu berehalako laguntzarik behar, galdetu ea

berak zer egin nahi duen. Salaketa bat jarri nahi badu, horri buruzko erabakia hartzeko, komeni da SAMen (Emakumeentzako Arreta Juridikoko Zerbitzua) informazioa eskatzea, 112 - SOS Nafarroaren bidez. Salaketa jartzen badu, SAMEk lagunduko dio prozesu guztian.

3. Argibide garrantzitsua:

- o Bortxaketa gertatu bada, garrantzitsua da biktimak arropaz ez aldatzea eta ez garbitzea. Bortxaketa ahozkoa izan bada, ez dezala edan edo jan, erasotzailearen aurkako frogak desagertzen ahal baitira.
- o Foruzaingoak, ospitaleek edo osasun etxeek esku hartzen badute (112 telefonoaren bitartez), biktimak jakin behar du salaketak ofizios aurkezten direla.

3: ERANTZUN INSTITUZIONALA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA KASUETAN

Toki entitatearen jarrera publikoa

Garrantzitsua da toki entitateak inprobisatutako erantzunik batere ez ematea, jasotako informazioa egiaztatu arte, nahiz eta komunikabideak hartarako presioa egin; gainera, beti jokatu beharko du biktimarekiko begirunez.

Gertakariaren larritasunaren eta oihartzun publikoaren arabera, garrantzitsua da jarrera publikoaren adierazpena ahalik denbora tarte txikinenean bukatzea entitateak gertatutakoaren berri izan duenetik. Sexu erasoen kasuan edota kasu larrietan, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin koordinatu beharko da, protokolo berezia baitu horrelako kasuetarako.

Komunikazioa

- 1. Komunikazioa Kudeatzeko Mahaia** deitzen edo eratzen da: Alkatetza, Berdintasun Atala eta Udaltzaingoa. Berdintasun atalak adierazpen instituzionalaren proposamen bat prestatzen du, Bozerramaile Batzarrean aurkezteko, eta azken horrek onesteko. Proposatzen dugu mahai hori izan dadila beste eragile instituzional edo sozialei udal informazio ofiziala emanen dien iturri bakarra.
- 2. Bozerramaile Batzarraren** deialdia egitea adierazpena onesteko.
- 3. Udaltzatza Berezia:** Gaitzespena adierazteko elkarretaratze ofizialaren deialdia egitea. Erabaki behar da ea udala akusazio partikular gisa aurkeztuko den (erabaki hori geroratzen ahal da, kasuaren arabera).
- 4. Festetako Eraso Sexisten Kontrako Mahaiaren** deialdi berezia egiten da, eta udalak komunikazioaren arloan eginen dituen jarduketan berri ematen zaio.
- 5. Gertatutakoa udaleko webgunearen tokirik** ikusgarrienean jartzen da (adibidez, hasierako orrian, hondo beltzarekin eta erdian esku morea

jarrita), baita sare sozialetan eta gainerako komunikazio euskarrietan ere.

- 6.** Hala erabakiz gero, toki entitatearen fatxadari, pankarta edo olana bat jartzen ahal da, esku morea edo gorria erakusten duena.
- 7.** Banderak haga erdira jaitsiko diren eta horrela noiz arte egonen diren erabakitzea.
- 8.** Idazkariak beste toki entitateei ere bidaliko die adierazpen instituzionala, Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioaren bitartez, haien atxikipena eskatzeko.
- 9.** Alkateak sinatutako esker oneko ohar bat bidaltzen ahalko zaie herritarrei, egindako mobilizazioa dela-eta, eta udal webgunean, Facebooken eta abarrean argitaratuko da.
- 10.** Alkateak sinatutako esker oneko ohar bat bidaltzen ahalko zaie, udal webgunearen bidez, familiari doluminak eta sostengua adierazi dieten gainerako udalei ere.

Informazioaren tratamendua

Informazio guztia konfidentziala izanen da, eta kasuan zuzenean esku hartzen duten langileek soilik izanen dute, dagokien lanbide erantzukizunaren arabera, indarkeria jasan duen emakumeari edo erasotzaileari buruzko datu identifikatzaileen berri.

Halaber, toki entitateak eta protokoloan inplikaturako beste erakundeek ez dute emanen biktima bere ingurunearekin identifikatzen edo lotzen ahal duten informaziorik, intimitatea gordetzeko duen eskubidea babesteko eta berriro biktima bilakatzea eragozteko; horrenbestez, gertatutako indarkeria motari buruzko datu orokorrak soilik emanen dira, hartutako neurriak justifikatzeko beharrezkoak direnak.

KOMUNIKAZIO PUBLIKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK:

- III. atalean proposatutako terminologia erabiltzea.
- Erantzun publikoa adosterakoan, garrantzitsua da erasoja jasan duen emakumearen iritzia aintzat hartzea.
- Erasoaren jatorria eta haren egiturazko izaera argi uztea, alegia, kasu horiek ez direla gertakari isolatuak eta gizonek emakumeen gainean eraiki dituzten nagusitasun eta botere harremanekin lotuta daudela.
- Argi uztea erantzule bakarra erasotzailea dela. Erasoja pairatu duen emakumea errudun bilakatzen duten diskurtsorik ez egitea, gisa honetako argudiorik erabili gabe: emakumearen jokabidea, janzkera, erasotzailearekin zuen harremana, kultura, erasoja zer ordutan gertatu den, salaketarik jarri ez izana, etab.
- Zenbaitetan, zaila izaten da berehalako erantzuna prestatzea, erasoja gertatu zenetik denbora tarte bat igaro ondoren izaten baita haren berri. Bestalde, oso ongi adostu behar da zer esan behar den eta zer ez, bizirik atera diren biktimen identitatea babesteko. Salaketa erasoja gertatu zenetik egun batzuk igaro ondoren egiteak ez dio indarririk kentzen, inolaz ere.
- Emakumeak ez dira erantzule gisa aurkeztuko baldin eta erasotzailearen kontrako salaketarik ez aurkeztea erabakitzen badute. Aintzat hartu behar da zer egoeratan gelditzen diren salaketak jartzen dituzten emakumeak, ea sostengurik duten eta beren inguruan sare sozial eta afektiboa duten, kasu batean zein bestean berriro biktima bilaka ez daitezen.
- Bizirik atera diren biktimen seme-alabak ere emakumeen aurkako indarkeriaren biktima zuzenak dira.
- Ez da erasoaren kausei buruz (itxura, jeloskortasuna, erasoaren edo biktimaren nortasuna, jatorria, etab.) espekulatu behar. Ez zaio inolako aipamenik eginen erasotako emakumearen jatorriari, ezta erasotzailearenari ere, ez baita esanguratsua eta epaiak egiteko bidea eman besterik ez du egiten. Gainera, argi gelditu behar da erasotzailearen profil argirik ez dagoela.

—○ Ahal dela, mezuek ez dute beldurra eratu, eta ez dute emakumeen askatasuna mugatu. Gainera, beldurra emakumeen gaineko kontrol modu bat ere bada.

—○ Ez da eraso bat justifikatzen edo bitartekaritza errazten ahal duen adierazpenik eginen, azken hori legez debekatuta baitago.

—○ Mobilizazioetarako deialdiak honako hauek izanen ditu helburu: gertakari matxista horien inguruko isiltasuna haustea, kontzientzia sortzea eta kaltea osatzen laguntzea.

7.3. HILKETA KASUETAN ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EGOERA LARRIETAN ARITZEKO PROZEDURA

Gutxieneko jarduketa prozedura hau beste protokolo espezifikorik ez duten toki entitateetarako da, eta lurralde horretan urteko edozein unetan gertatutako indarkeria kasu larrietan edo hilketan bukatzen direnetan aritzeko modua zuzentzeko eta bideratzeko xedea du, jarduketa berehalakoa eta eraginkorra izan dadin. Prozedura honek

jarduketarik urgenteenak biltzen ditu, baina tokiko entitateak beste ekintza batzuekin osatzen ahalko du (lagungarriak izaten ahal dira gida honetan aurkeztutako beste protokolo eredueta egindako proposamenak).

JARDUKETA IBILBIDEA HILKETA KASUETARAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EGOERA LARRIETARAKO

1

Gertaera berrestea, ikerketaren ardura hartu duen polizia kidegoaren bitartez.

2

Bizirik atera den biktimarekin edo/eta bere familiarekin harremanetan jartzea, banan-banako elkarrizketa baten bidez, gai hauek argitzeko:

- Gertaera horretatik eratortzen ahal diren premiei (juridikoak, psikologikoak, baliabideei eta laguntzei buruzko informazioa, seme-alabei arreta ematea, etab.) berehalako erantzun profesionala ematen ari zaiela egiaztatzea edo bermatzea. Horretarako, genero indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldearekin (BAIT) harremanetan jartzea gomendatzen da, toki entitatea dagoen lurraldean halakorik badago.
- Biktimaren edo familiaren baimena eskatzea udalerrian gertatutakoa gaitzesteko ekintza publikoak egiteko (haien denborak eta egoera bizitzeko modua errespetatuz).

3

Udalbatza berezia deitzea, gertatutako emakumeen kontrako indarkeria kasua gaitzesteko testu bat onartzeko eta arbuioa adierazteko elkarretaratze bat deitzeko. Bilkura horretan erabakiko da ea toki entitateak zigor prozeduran parte hartzen duen herri akzioa baliatzeko; une egokia denean, biktimari edo horren familiari erabaki horren berri eman beharko zaio, beren onespena eskatzeko (gomendagarria litzateke, nahiz eta biktimaren edo familiaren baimena ez den nahitaezkoa herri-akzioa baliatzeko).

4

Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin harremanetan jartzea, jarduketak koordinatzeko.

5

Gaitzespen elkarretaratzearen deialdia egitea udal bandoaren bidez, iragarki taularen, webgunearen, emakumeen elkarten edo udaleko talde feministen bitartez, besteak beste. Deialdi horretan, udalbatzak onartutako arbuio testua irakurtzen ahalko da. Deialdia gertakariaren berri izan eta ondorengo 24 orduen barruan egingen da, baldin eta gertatutakoari buruzko informazio ofizial nahikoa eta egiazkoa eskuratu bada.

ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK

- o Instituzioek indarkeria gaitzestea nahitaezkoa da kasu hauetan.
- o Gertakarien, emakumeen eta horien seme-alaben konfidentzialtasuna bermatu behar da, horiek eta horien senideek hala eskatzen dutenean.
- o Gertakaria jendaurrean jartzeagatik berriro biktima bilakatzea eragozte.

TESTU OFIZIALETAN EMAN BEHARREKO MEZUEN EDUKIA

- o Emakumeen kontrako indarkeria dagokion testuinguruan jartzea, hau da, nahitaez aurre egin beharreko giza eskubideen urraketa larri gisa.
- o Gertakari horiek izendatzeko “emakumeen kontrako indarkeria”, “indarkeri matxista” eta “indarkeria sexista” esapideak baliatzea.
- o Aitzitik, beste esapide hauek saihestea “pasiozko krimena”, “bikotearen barruko indarkeria”, “etxeko indarkeria” edo “homizidioa”.
- o Emakumeei errurik ez egozte, ez eta indarkeria justifikatzea ere, ezein arrazoi dela bide.
- o Inolako informaziorik ez ematea emakumeen, haien etniaren, egoera pertsonalaren, familiaren edo lanaren inguruan, ez eta haien seme-alaben inguruan ere, halakorik badago.

GAITZESPEN DEIALDIA EGITEKO TESTUAREN PROPOSAMENA

“X toki entitateak herritarrei dei egiten die elkarretaratzean parte hartzera, [herriaren izena](e)n izan den emakumeen kontrako indarkeria kasuaren aurkako gaitzespena adierazteko. Kontzentrazioa isila izanen da, [hila]aren [eguna](e)(a)n, [ordua](et)an, [tokia](e)n.

X-eko Udalak, deialdi honen bidez, gaitzespena eta arbuioa erakutsi nahi ditu emakumeen kontrako indarkeri mota guztien kontra. Halaber, babesa eta elkartasuna adierazi nahi dizkio biktimaren familiari, eta emakumeek beren bizitza bakean eta indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea eraginkorra izatearen alde duen konpromisoa ere agertu nahi du”.

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

Nafarroako Berdintasunerako Institutua Lagunduta
Instituto Navarro para la Igualdad